

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXV.edizioa

2 0 1 3



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXV.edizioa

2 0 1 3

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

TECNIGRAF, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-679-2013

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Urteak joan, urteak etorri, Mikoleta Ipuin Lehiaketak 25 urte bete ditu eta aspaldi hasitako sareak zabaltzen jarraitu izan du urteurren honetan; izan ere, dagoeneko 621 dira sarituak izan eta argitaratu diren ipuinak eskuartean duzun moduko liburuxketan.

Lehenengo edizioarekin alderatuz, XXV. edizioan parte hartzaileen kopurua ia-ia hirukoiztu egin da, 1989an 320 ipuin aurkeztu baziren, aurtun epaimahaiko kideek 926 ipuin irakurtzeko aukera izan dute eta.

Urte oparo hauetan hainbat izan dira Arabiar Aretoa saridunak izateagatik deituta neska-mutikoak. Eta, era berean ere, saritutako maisu, andereño eta irakasleak. Eta aurtengo sari banaketan ezinezkoa egin bazait zuen artean egotea ere, jakizue, gustagarria izaten dela Arabiar Aretoa udaberriko kolore eta usainez janztea.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

*Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko martxoaren hamalauko arratsaldeko bostetan batuta,
hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXV. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,
aurkeztutako 926 ipuinak aztertu ondoren:*

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. GALDUTAKO GILTZA,
Iñaki Sasia Tato,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
2. ELKAR TRUKAKETA,
June Landa Sagarduy,
Birjinetxe LHI.
3. IZENIK GABEKO ANIMALIAK,
Ixone Jiménez Rodríguez,
Félix Serrano LHI.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. SHAARA,
Gerizeti Zubiaurre Bañuelos,
Intxixu Ikastola LHI.
2. MAITASUNAREN GILTZA ETA INDARRAREN BOTEREA,
Garazi Oregi Pampin,
Luis Briñas-Santutxu LHI.
3. DISTANTZIA,
Alexia Arias Pocino,
Berrio-Otxoa HLBHIP.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. DENBORA AURRERA DOA,
Cecilia Fernández Altonaga,
San Adrian BHI.
2. HOMOSEXUALA NAIZ,
Laura Zabala Domínguez,
San Adrian BHI.
3. MAITE ZAITUT, BILBO,
Telmo Briones Basauri,
Miguel de Unamuno BHI.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. GERRA EZ DA ABENTURAK BIZITZERA JOATEKO,
Iñigo García Cobián,
Berrio-Otxoa HLBHIP.
2. NIK EZ ZAITUT AHAZTUKO,
Oihane Durán Arbaiza,
Gabriel Aresti BHI.
3. KRISIALDIAN, ESKUZABALA IZAN BEHAR!,
Andrea García Echeberría,
Berrio-Otxoa HLBHIP.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- JONEN ETA MIKELEN ALTXOR MIRESGARRIA, Martin López Arandia, Félix Serrano LHI.
- MOHAMEDEN BIZIMODUA, Eneko Ebro Cortina, Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA:

- ANIMALIAK GORROTO ZITUEN ALBAITARIA, Adrian Hernando Andrés, Luis Briñas-Santutxu LHI.
- SEI NESKA OSO ARRARO, Maialen García Román, Maestro García Rivero HLHI.
- ESKAILEREN ARTEKO ISILGUNEA, Sofia Blasco Huidobro, Félix Serrano LHI.
- LATA BATEN BIZITZA, Iratxe Pereda Vázquez, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- AMAMAREN KONTAKIZUNAK, Unai Vélez Obieta, Kirikiño Ikastola HLBHIP.

C KATEGORIA:

- ANGEL ETA ARDIAK, Guillermo del Pozo Garrido, San Adrian BHI.
- IRRIBARRE HORIEK ATZEAN UZTEA, Gorka Mediavilla Briones, Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
- BETIRAKO ITXARONGO DIZUT, Celia Calcedo Roda, Gabriel Aresti BHI.

D KATEGORIA:

- AMETSEN BALIOA, Jon Peña Torre, Berrio-Otxoa HLBHIP.
- BANANA, Amaia Beitia Martínez, Nuestra Sra. del Carmen HLBHIP.
- AMETS, Maitane Barredo Peña, Nuestra Sra. de Begoña HLBHIP.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon, bi mila eta hamahiruko martxoaren hamalauko seietan.

Sabin Anuzita Pomposo, epaimahaiburua

<i>Lutxo Egia, epaimahaikidea</i>	<i>Igone Etxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Irene Berro, epaimahaikidea</i>	<i>Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea</i>
<i>Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea</i>	<i>Txani Rodriguez, epaimahaikidea</i>
<i>Luis Gutierrez, epaimahaikidea</i>	<i>Pedro Alberdi, epaimahaikidea</i>

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



Galdutako giltza

*Iñaki Sasia Tato,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin Iñaki izeneko mutiko bat. 9 urte zituen eta jatorra, indartsua eta beldurgabea zen. Alde zaharrean bizi zen bere familiarekin, Barrenkale Barrenako 16. atarian.

Iñakiren ama larunbatero Erriberako merkatura joaten zen erosketak egitera. Iñaki berarekin joaten zen erosketak etxera ekartzen laguntzeko. Han piper, tomate eta txorizo saltzaileak zeuden, arrandegi eta harategi asko ere bai.

Larunbat batean Iñaki aspertuta zegoenez, San Anton elizaren ondoan gelditu zen amaren zain pilotarekin jolasten. Jolasten zegoela, gizon bat agertu zen. Zaharra zen. Ezpata luze bat zeukan urrea baino distiratsuagoa. Erdi Aroko gerlari baten moduan jantzita zegoen. Ematen zuen gizona zerbaiten bila zebilela. Bere ondotik pasatu zenean Iñakik galdetu zion:

—Kaixo, zer ari zara bilatzen?

—Oso gauza inportantea galdu dut! Giltza berezi bat, handia, pisuduna eta urrezkoa. Ikusi al duzu?

—Ez, baina hain handia bada, erreza izango da aurkitzea.

—Zertarako behar duzu? —galdetu zion Iñakik.

—Gauero Bilbo hiriko atea ixten dut giltza horrekin “Gaueko” ez sartzeko.

—Nor da “Gaueko”?



—Gaueko eguzkia ezkutatzen denean irteten den izakia da. Oso maltzurra eta errukigabea da. Gauekok esaten du gaua gauekoentzat dela eta eguna egunekoentzat. Horregatik Gauekok gauean etxetik kanpo gizakia harrapatzen duenean iluntasunaren mundura darama betiko.

—Nahi baduzu, lagunduko dizut giltza bilatzen. Ez dut nahi inori horrelakorik gertatzea.

Iñaki alde zaharreko Zazpi Kaleetara abiatu zen giltzaren bila. Leku guz-

tietatik begiratu zuen baina ez zuen aurkitu. Luzaroan bilatzen egon zenez, nekatu egin zen eta Txakur Kaleko iturrian gelditu zen ura edateko. Ura edaten zegoen bitartean, zerbait distiratsua ikusi zuen. Besoa luzatu eta hara, han zegoen giltza!

Iñaki gizonaren bila joan zen korrika giltza ematera. Gizonak eskerak eman zizkion eta bera nor zen azaldu zion.


—Don Diego Lopez de Haro naiz, Bilbo fundatu nuen eta zuk egindako mesedea eskertzeko zaldun izendatuko zaitut. Makurtu zaitez.

Iñaki makurtu zen, Don Diegok bere ezpata atera, lepo gainean jarri eta zaldun izendatu zuen.

Iñaki korrika joan zen amarengana gertatu zen guztia azaltzeko. Amak ez zion sinetsi eta esan zion:

—Iñakitxu, hori ezinezkoa da. Don Diegok 1300. urtean fundatu zuen Bilbo hiria eta ia 600 urte daramatza hilda. Ametsetan egon zara, ametsetan ...

Egia ala gezurra begien artean sudurra.



ELKAR TRUKAKETA

June Landa Sagarduy,
Birjinetxe LHI.



Autobusa bost minutu berandu heldu zen. Denok oso urduri geunden. Agertu zenean, eta monitoreak eta umeak jaitsi zirenean, berehala Nizzar ezagutu nuen. Nizzar hamar urteko mutikoa zen, ni bezalakoa. Bera marokoa, ni, berriz, bilbotarra, baina aste bat elkarrekin pasatzera etorri zen bi eskolen arteko trukaketa baten barruan.

Gabonak ziren eta beraiek ez dutela ospatzen aprobetxatuz elkartu ginen hemen. Ni udaberrian joango naiz Marokora nire gelakoekin: 3 ordu hegazkinez, monitoreekin!

Astelehenean, urteko lehenengo egunean, paseo bat eman genuen auzotik eta laster joan ginen etxera Nizzar oso nekatua zegoen eta. Etxean dena erakutsi nion: non zeuden kubiertoak, non egingo zuen lo, jostailuren bat, komuna... Nire amona ere aurkeztu nion ingelesa ez zekiela esanez. Goiz afaldu genuen barre artean, Nizzar amonarekin komunikatu behar zenean oso barregarria zen eta. Ondoren, ohera sartu ginen guztiok.

Asteartean, 2an, goizean, ni esnatu orduko, Nizzar esnatuta zegoen otoitz egiten oso fededunak direlako arabiarak. Gosalduta eta gero Guggenheimerera joan ginen, autobusez, noski. Museoan oso jende gutxi zegoen. Nizzarrek eta biok ez genuen ezer ulertzen margolanei buruz, baina gehien gustatu zitzaiguna Pupi txa-


kurra izan zen, eta gutxien Sierraren eskultura erraldoiak: barrura sartu egiten ginen baina ateratzea asko kostatzen zitzaigun. Ilundu aurretik etxera bueltatu ginen eta hurrengo eguneko plana azaldu nion, oso luzea izango zelako: Alondegiko igerilekuak eta San Mames.

Athletic irabazten ikusi eta gero, hurrengo egunean goiz altxatu, bokatak egin eta mendira joan ginen: Pagasarri mendira. Ordubeteko igoera izan zen, gainera elur pila zegoen. Amona azkenengo aldapan erori eta ipurdiarekin jaitsi zuen alda-pa osoa. Horregatik, kontuz igo ginen eta goian salda hartu eta etxera jaitsi ginen. Dutxa bat hartu eta afaltzera atera ginen txino batera.

5. egunean, goizean, nire lagunak aurkeztu nizkion, eta jolasten egon ginen. Arratsaldean, berriz, hiru Errege Magoen kabalgata ikusi nahi genuenez Bilboko metroa hartu genuen. Gran Viara heldzean karrozak pasa ziren eta Nizzar hain harriturik zegoen galdu egin zela. Gu oso kezkatuta geunden, jendeari galdezka, korrika hara eta hona. Bat-batean lasaitzen saiatzen ari ginela, Nizzar ikusi genuen Errege beltzaren karrozan, Baltasarren besoetan. Antza, Erregeak umea galduta ikustean igoarazi egin zuen. Opari bat emanez lasaitzen saiatu zen, hizkuntza berdina erabiltzen zutelako: arabiarra.

Hurrengo egunean, agurtzean, argi zegoen ez zuela ahaztuko nolakoak diren hemengo Gabonak. Baina batez ere Errege Mago batek salbatu zuela.

Ze abenturak itxarongo nau Marokon?




Izenik gabeko animaliak

*Ixone Jiménez Rodríguez,
Félix Serrano LHI.*

Aspaldiko garaietan, animaliek ere hitz egiten zutenean, herrixka txiki bat zegoen “Animalopolis” deitzen zena. Garai hartan animaliek ez zuten izenik.

Egun batean azoka txiki bat egon zen eta animalia guztiak joan ziren. Azeria (oraindik ez zeukan izen hori) joan zen lehenengo eta azeri izena hartu zuen. Etxera zihoala txakurrarekin (oraindik ez zeukan izen hori) topatu egin zen. Eta txakurrak esan zion:



—Lagun! Oraindik gertatzen da izenik?

—Bai. Orain ez naiz deitzen lagun, Azeri deitzen naiz.

—Beno, agur. Izen bat erostera joan behar dut.

Eta txakurra (oraindik ez zena horrela deitzen) joan zen. Azokan txakur izena erosi zuen.

Etxera zihoala, katuarekin (oraindik ez zena horrela deitzen) topo egin zen:

—Aupa, zer izen hartu duzu azokan?

—Txakur, txakur hartu dut.

—Txakur, zenbat izen geratzen dira gutxi gora-behera?

—Gutxi.

—Beno, agur.

Eta azokara joan zen. Katuak (oraindik ez zena horrela deitzen), azokan, katu izena hartu zuen. Etxerako bidean Kanarioarekin (oraindik ez zena horrela deitzen) topo egin zuen:

—Kaixo laguntxo, zer izen hartu duzu?

—Nik katu hartu dut.

—Zenbat izen geratzen dira?

—Oso-osu gutxi.

—Beno. Banoa hegan.

Eta Kanarioa (oraindik ez zena horrela deitzen) azokara joan zen. Azokara ailegatu zen eta bakarrik geratzen zen izen bat! Eta erosi egin zuen oso polita zelako. Etxera ailegatu zenean, animalia guztiei gustatu zitzaaien haren izena. Eta horrela animaliek badaukate bakoitzak bere izena.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Indautxuko plazan.

Jonen eta Mikelen altxor miresgarria

Martin López Arandia,
Félix Serrano LHI.

Orain dela urte asko, familia zoriontsu bat bizi zen. Familia horretako umeak Jon eta Mikel deitzen ziren. Egun batean, Jon aspertuta zegoen eta ideia on bat bururatu zitzaion:

—Aizu, Mikel! Ideia bat bururatu zait! Zer iruditzen zaizu abentura bat bizitzea? Dibertigarria izango da, ezta?

Eta Mikelek erantzun zion:

—Ideia bikaina, Jon! Goazen parkera abentura bat bizitzera!

Esan eta egin, biak batera joan ziren parkera. Bat-batean zulo erraldoi bat ikusi zuten eta biak zulora sartu ziren. Eskerrak Mikelek leku guztietara bi pala eramaten zituela!

Han zeuden bi anaiak palekin zulo sakon bat egiten saiatzen.



—Mikel, nik deskantsatu behar dut, leher eginda nago —esan zuen Jonek.

—Apur bat gehiago, anaiatxo —erantzun zuen Mikelek.

Bi mutikoek zulo sakona sakonago egiten jarraitu zuten.

—Begira, Jon. Ikusten duzu argi txiki hori? —galdetu zuen Mikelek.

—Bai, bai, ikusten dut! —erantzun zuen Jonek.

—Oso gutxi falta da zulo sakon hau amaitzeko!!! —esan zuten bi anaiatxoek batera.

Jon eta Mikel zuloan gehiago sakontzen saiatu ziren. Azkenean zuloa amaitu zuten Jonek eta Mikelek.


Zuloa eta gero, beste mundu bat zegoen. Mundu horretako gizakiek mendi erraldoi bat eskuekin seinalatzen, mendi puntan altxor miresgarri bat zegoela esaten zuten.

Jonek eta Mikelek abentura bat bizi nahi zutenez, hara joan ziren. Mendiak 1.928.395 km zituen. Jonek eta Mikelek mendi laurdenaren laurdena igo zuten eta goiz nekatu ziren. Ordu erdiko deskantsua egin eta gero, mendia igotzen jarraitu zuten eta beste laurdenaren laurdena igotzen zutenean deskantsatzera joaten ziren, horrela denbora guztian.

Jon eta Mikel mendi puntara heldu ziren eta Ozeano Gozokitikoa ikusi zuten. Bi anaiak ozeano hura nola zeharkatu pentsatzen hasi ziren. Azkenean, Joni ideia bikain bat bururatu zitzaion:

—Ideia bat bururatu zait, Mikel! Hor dagoen txokolatezko itsasontzia hartuko dugu Ozeano Gozokitikoa zeharkatzeko.

Jon eta Mikel txokolatezko itsasontzia hartzera joan ziren. Baina txokolatezko itsasontzi aurrean gominola guardiak zeuden. Mikelek eta Jonek plan bat egin zuten. Plana egin eta gero, planean esandakoa hasi ziren egiten, bi mutilak gominola guardak jaten hasi ziren.



Hori plan ederra eta gozoa izan zen. Geroxe-ago, Jon eta Mikel txokolatezko itsasontzi barrura sartu ziren, eta lurrian labirinto bateko mapa bat aurkitu zuten.

Ozeano Gozokitikoa zeharkatu eta gero labirinto bat aurkitu zuten eta anaiak ez zekiten nondik joan. Orduan, Mikelek txokolatezko itsasontzian aurkitutako mapa sakelatik atera eta mapari esker labirintoa zeharkatu zuten. Han altxor miresgarri bat ikusi zuten, eta Jonen eta Mikelen familia aberastu egin zen. Ondoren, igogailu bat ikusi zuten. Bi umeak igogailuan sartu ziren eta ohean agertu ziren.

Hala bazan edo ez bazan, gominola guardak dabilta dantzan.

Mohameden bizimodua

*Eneko Ebro Cortina,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Hau Mohamed-en istorioa da. Mohamed 8 urteko mutila da, Kamerunen jaioa. Berak 7 anai-arreba ditu. Oso altua, begi beltzak, azal beltza eta eskuzabala, alaia, lagunkoia da baina gaixotasun larri bat dauka. Kamerungo medikuek Mohameden gaixotasuna sendaezina dela diote. Mohamed ezin da mugitu laguntzarik gabe, baina lagun asko dauka laguntzen diotenak. Bere gurasoek aulki gurpilduna erosi diote.

Azken urte hauetan bere gaixotasuna gero eta larriagoa da eta medikuek Mohamedek ebakuntza bat behar duela esaten dute, baina bere herrialdean ez dago dirurik ebakuntza egiteko. Gurasoek laguntza eskatu dute eta Bilboko mediku batzuek ebakuntza egingo diote dohainik. Horretarako Mohamed eta bere gurasoak Bilbora etorri behar dira bizitzera. Familia batek hartuko ditu bere bizilekuan.

Mohamed eta bere gurasoak badaude Bilbon. Ez dute hizkuntza ondo eza-gutzen baina apurka-apurka moldatzen ari dira oso ondo.

Gaur goizean medikuek ikerketa bat egin diote eta ebakuntza ere egin diote. Mohamedek bost egun emango ditu ospitalean eta tutu asko jarri dizkiote gorputzean. Hau badakit bera ikustera joan den bisitaria naizelako. Egunak pasa ahala, Mohamed gero eta hobeto sentitzen da. Gaur arratsaldean sendagileek etxeratze-ko esan diote. Hau poza!!!

Gaur egun Mohamedek ez du behar aulki gurpilduna eta bakarrik behar du makila bat leku batetik bestera mugitzeko. Gainera, Mohamed ikastetxe batean lehen hezkuntzako 4. mailan sartu berri da. Oraintxe bertan oso mutil alaia, atsegina eta bihurria da eta guztiei berari emandako laguntza eskertzen die. Bilbon bizi da bere senideekin.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Shaara

*Gerizeti Zubiaurre Bañuelos,
Intxixu Ikastola LHI.*

Amorrua, gorrotoa. Shaarak ezin du gehiago. Nahi duena egingo du. 16 urte ditu eta nahi badu, txikitako zapi gorrotagarriak kenduko ditu aurpegitik. Ama ados dago, baina aitari beldurra dio. Shaarak ez, ordea, eta esan egiten dio.

—Aita, nazkatu naiz. Ihes egin dezaket eta egingo dut.

Aitak, amorraren amorruz Shaara jo eta gero, beste edari bat eskatzen dio amari oihuka. Shaara negarrez doa bere gelara.

Gaua da. Shaarak bere gauzak hartu eta kamioi azpian sartzen da. Ez du beldur gehiago edukiko. Kamioia martxan jarri da. Badoa.

Eguna da. Oso latza izan da Shaararen bidaia. Desertua gogorra da eta harea ekaitza egongo dela esan dio gasolindegiko andreak gidariari.

Kamioi gidariak barre egin eta kamioian sartu da. Shaarak hasperen egin du. Berriro desertura.

Andreak arrazoa zuen, harea ekaitza dator. Shaarak airean nabari du. Kamioi gidariak gidatzen jarraitzen du, ordea. Shaarari eskuak irristatzen zaizkio.

Harea ekaitza izugarria da. Shaara beldur da. Ez du etxera itzuli nahi, ordea. Harea ekaitza baretu da. Hirira heldu dira.

Hiriko portuan dago Shaara. Itsasontzi bat ikusi eta bertan sartzen da. Londresera bidean doa.

Salbamendu-txalupa baten barruan dago. Itsasontzia itsasoratu zenetik, oso gutxi jan du eta, hori gutxi balitz, birritan egin du botaka. Shaara lo geratu da.

Bidaia amaitzear dago eta jada Londres ikusten da. Shaara pozik dago.

Shaara lurreratu egin da. Aurpegiko zapiak kendu ditu. Negarrez dago. Ez du beldurrik, ez, ez du beldurrik eta ez du izango. Librea da.



Maitasunaren giltza eta indarraren boterea

Garazi Oregi Pampin,
Luis Briñas-Santutxu LHI.

Istorio hau nire historia da. Ez da ez polita ez alaia baina nahi dut zuek irakurtzea ikusteko zer gertatzen den mutil batek liluratzen zaituenean.

Maiatzaren 20a, igandea

Kaixo ni Lara deitzen naiz. Niri egunerokoa idaztea lelokeria iruditzen zait baina nire amak esaten du ona dela.

Benoa, nik 20 urte ditut eta urte honetan nire karrera amaituko dut, medikuntza.

Bihar 3 kontrol ditut eta hirurak gainditzen baditut, karrera amaituko dut.

Maiatzaren 21a, astelehena

Zer urduri nagoen! Hiru kontrolak egin ditut. Orain unibertsitateko jantokian nago eta Tom hurbildu zait eta esan dit:



—Kaixo, Lara. Zelan 3 kontrolak? —esan dit nire lagun minak.

—Ondo eta zu? Oso argia zarenez, errazak baino errazagoak izan behar ziren zuretzat, ez? —esan diot nik.

—Beno, ez naiz kexatzen baina... Lara! Berrirori Robertori begira? Tipo hori ez da zuretzat! —esan dit.

—Zergatik ez!!! Roberto goapoa da, argia eta medikuntza gustatzen zaio. Perfektua da niretzat!

Orduan haserretu eta joan egin da. Txarrago berarentzat, ez du nire gauzetan sartu beharrik.

Maiatzaren 29a, asteartea

Barkatu, egun hauetan ez dut idatzi.

Oraindik ez dut sinesten baina pasa den astean etxean nengoen eta nire mugikorrak jo zuen:

—Kaixo, Lara? Roberto naiz, zure liburua aurkitu dut jantokian. Noiz eman ahal dizut?

—Ga, ga, ga... Gaur bertan!!! Unibertsitatean ikusi ahal gara.

—Bale ba, gero arte! Agur!

Eta horri esker lagunak egin gara.

Ekainaren 1a, ostirala

Orain kafetegian nago kafesne bat hartzen Unira joan baino lehen. Gaur 3 kontrolen notak emango dizkigute. Batean Roberto kafetegiaren terrazatik pasatu da eta nik ziztu bizian esan diot:

—Robertooo!!! Zelan zu hemendik? Unibertsitatea beste aldean dago.

—Ez noa unibertsitatera. Kontzertu batera noa, klaseak itxaron ahal dute! Etorri nahi duzu?

—Baina... inoiz ez naiz falta izan klase batera.


—Ondo pasatuko duzu. Benga, Lara...

—Bale!! Klaseak amaitu ditut eta.

Orduan Barakaldon dagoen areto batera joan gara. Goiz-goiz sartu gara lekua hartzeko, baina txarto sentitzen naiz nire gurasoek pentsatzen dutelako unibertsitatean nagoela.

Orduan barruan genbiltzan eta jende guztiak ardoa ekarri du. Zer egingo dut? Nik ez dut edaten alkoholik!!

Orduan Robertok esan dit probatzeko eta orduan probatu dut, kopa batengatik ez da ezer gertatuko.



Ekainaren 2a, larunbata

Gaur nire ohetik altxatu eta amak esan dit:

—Lara!! Esnatu zara? Atzo konortea galdu zenuen kontzertu batean. Eta zer egiten zenuen zuk kontzertu batean? Tomek esan dit Robertok konbentzitu zintuela. Mutil horrek bakarrik gauza txarrak eman dizkizu.

—Robertok ez dit egin ezer!! Nire errua izan da.

Orduan Tom nire gelara sartu eta esan dit:

—Non egon zara egun hauetan? Ez zaitut ikusi.

—Zergatik esan behar dizut? Ez zaizu gustatuko nire erantzuna.

—Robertok esan zizun kontzertura joateko, ezta? Esan nizun mutil hori ez dela zuretzat.

—Robertok ez dit minik egin, ondo nago.

—Baina bera etorri da zu ikustera?

—Ez, baina seguru etorriko dela.


—Beno, laguntza behar baduzu, niri deitu, zure ondoan egongo naiz laguntzeko eta.

Eta horiek izan ziren Tomen azken hitzak, gero logelatik atera zen.

Ekainaren 4a, astelehena

Orain parkeko banku batean eserita nago. Esan didate 3 kontrolak gainditu ditudala eta ospatzeko parkera joan naiz. Oso ondo sentitzen naiz, baina Roberto ez dut ikusi oraindik.

Ibiltzen nengoela mugikorrak jo du:



—Bai? —esan dut

—Kaixo, Lara!! Ondo zaude? Roberto naiz, zurekin hitz egin behar dut.

—Bale. Gaur arratsaldean libre zagoz?

—Bai. Ba zazpi eta erdietan parkean, ondo?

—Bai. Agur.

—Agur.

Ettxera joan, jan eta ziztu bizian parkean nengoeren berriro.

Han Roberto zegoen, ikusi nauenean aurpegi alaiarekin besarkatu nau:

—Kaixo, Lara. Ondo zaude!! Edozein gauza gertatuko balitzaizu...



—Beno, ondo nago eta ez da izan zure errua. Zertaz hitz egin nahi zenuen?

—Beno, klaro-klaro, esango dut. Lara zu niretzat pertsona oso berezia zara eta zurekin pasatu nahi dut nire bizitza osoa.

—Nik asko maite zaitut, baina nora joango gara?

—Nik apartamentu bat dut, txikia da baina biontzako ondo dago.

Ekainaren 5a, asteartea

Orain Robertoren etxean nago, Tomi deitu diot eta nire gurasoei ere bai eta biek gauza bera esan didate: zu zoriontsua bazara...

Maletak desegin ditugu eta orain filma bat ikusten ari gara etxean.

Hau amets baten modukoa da.

Mugikorra joan naiz hartzera eta ... amatatuta zegoen!!!

—Roberto, mugikorra amatatu didazu?

—Bai, eske, ondo pasatzen gaude eta bestela...

—Nire amak deituko dit, igual garrantzitsua da!

—Ez hartzeko esan dizut!!! PUM!!!

Ez dut sinetsi egin duena, mugikorra leihotik bota dit. Ohera joan da eta ni negar egiten nago egongelan.

Ekainaren 6a, asteazkena

Gaur sofán gelditu naiz lo egiten. Robertok munstro baten antza hartu du, ez da bera.

Pentsatzen nengoen nori deitu ahal nion etxeko fíjotik eta orduan Tomi deitu diot:

—Kaixo, Tom. Lara naiz. Egia esaten zenuen Robertori buruz, munstro bat da. Zure laguntza behar dut Indautxuko kale batean pii, piiii, piiii ...

Robertok telefonoaren kablea moztu du!!!

—Zer, Lara? Ihesi nahian? PUM!!! Golpe mingarri bat eman dit aurpegian eta orduan Tomek atea behera bota du oihuak entzutean. Tom eta Roberto borrokatzen zebiltzan: PAMBA!!! Zartagin batekin eman diot buruan Robertori eta konortea galdu du. Orduan Tom eta ni ziztu bizian atera gara handik.


—Nola jakin duzu non nengoen?

—Kotxearekin jarraitu zintudan, ez nintzen fidatzen eta.

—Eskerrik asko, zu bai lagun ona.

Eta hau izan da nire historia. Maitasunagatik itsu nengoen eta ez nuen ikusten zer gertatzen ari zitzaidan.

Maitasunaren giltza hartu dut eta ez dut inoiz berriro galduko eta indarrarekin edozein gauza lortu ahal da.



DISTANTZIA

Alexia Arias Pocino,
Berrio-Otxoa HLBHIP.

Munduan beste asko bezala, urrutira begiratzen baduzu baso handi bat ikusiko duzu. Zuhaitz ugariak besarkadak ematen dituzte edo haien artean hitz egiten dute. Oso altuak dira eta eguzkira begiratzen dute. Haizea haien adarretatik dabil. Txoriek habiak egiten dituzte. Urtxintxak korrika doaz adarretatik eta janaria gordetzen dute. Animalia asko basoan bizi dira. Eta urrunago hiria dago.

Bi zuhaitzen artean belarra hazten da. Udaberriko egun batean, hiriko neska bat basora doa. Orduak pasa eta pasa eta gaua iristen da. Nekatuta belarrean jesartzen da. Botila bat ateratzen du eta ura edaten du. Basora begiratzen du eta konturatzen da oraindik ez dela heldu. Ez zen konturatu bidea hain luzea zenik. Orduan, bere motxilatik hazi txiki bat atera, lurrean landatu eta botilan geratzen zaion ura botatzen dio.

Udaberria amaitzen da. Uda heltzen da eta, geroago udazkena, negua eta berriro udaberria. Hazia zegoen lekuan, landare txiki bat dago. Urrutira begiratu eta





hiria ikusten du. Hark pentsatzen du azkar haziko dela. Baina ez. Bizitzaren prozesua motela da. Ilargi asko ikusi behar ditu. Baita eguzkia, haizea, elurra eta euria ere nabaritu. Eta denbora horretan, bakarrik sentitzen da. Normalean, basora joaten diren pertsonak bere aurretik pasatzen dira baina ez diote hari erreparatzen. Txoriek ere ikusten dute, baina ez diote erreparatzen bere adarrak oso argalak direlako euren habiak egiteko. Urtxintxek, berdin. Enbor argal horietan

ezin dira bizi. Tximeleta bat bere adarrean jesartzen da, eta beste zuhaitz batzuk nolakoak diren azaltzen dio eta hegan joaten da. Zuhaitza goibel eta bakarrik sentitzen da. Ilargiak eta urtaroak pasatzen dira. Eta denbora horretan pentsatzen du. Sentitzen duen argian, uretan eta lurrean pentsatzen du. Udako egunetan, norbait bere alboan jesartzen da atsedena hartzeko. Txori batzuk bere adarretan lasaitzen dira. Orain zuhaitzak ez du pentsatzen beste zuhaitz batzuek dauzkaten gauzetan, baizik eta berak dauzkan gauzetan.


Denbora pasatzen da. Zuhaitzaren bizitza alaia da. Egunak pasatzen dira eta handiago egiten da. Negua luzeagoa da. Elurra bere adarretan dago. Bere barnean ahots batzuk entzuten ditu:

—Itxaron lasai, handia izateko denbora helduko da.

Zuhaitzak konfiantza handia du. Horrela udaberria heltzen da. Udaberri alaia eta maitasunez beterikoa. Bat-batean, zeozer nabaritzen du bere adar berrietan. Poz handia sentitzen du, baina udaberri honetan ez ditu begiak irekitzen. Hark ez du poza eta ahots horiek desagertzea nahi.

Horrela udaberria desagertzen da. Beste urtaroak ez ditu nabaritzen, negua heldu arte. Neguan ahotsak desagertzen dira eta bakarrik haizearen isiltasuna entzuten da. Negu horretan zoritxarrak baino ez dira gertatzen. Azkenean, negu luze hori pasatzen da. Udaberri lasaia dator. Zuhaitzak ez dakiena da bere bizitzako udaberririk zoragarriena izango dela. Poliki-poliki animaliak esnatzen dira. Ahotsak berriro entzuten dira. Eta zuhaitzak begiak irekitzen ditu. Oraindik ez da konturatu, baina

txoriek bere adarretan habiak egin dituzte, urtxintxak bere enbor zabalean bizi dira eta tximeletak haren adarretako hostoetan eta loreetan daude. Bere loreetan!? Bai, orain loreak dauzka eta hemendik gutxira fruituak izango ditu. Zuhaitzak maitasu-





na eta adiskidetasuna nabaritzen ditu bere barnean. Orain basoko zuhaitz bat dela nabaritzen du. Agian ez dago basoaren barnean, beste zuhaitzak bezala, baina bere bihotzean ez du tarterik nabaritzen. Guztiok familia handi bat dira. Ez da inoiz gehiago bakarrik egongo, maitasuna bere bihotzean dagoelako. Eta maitasunak betiko arrastoa uzten du.

Animaliak gorroto zituen albaitaria

*Adrian Hernando Andrés,
Luis Briñas-Santutxu LHI.*

Bazen behin Bilbon bizi zen mutiko bat. Mutil hori Mikel deitzen zen eta 12 urte beteko zituen. Bere urtebetetzean, amak zaldi bat oparitu zion, baina Mikeli ez zitzaion gustatu. Mikeli ez zitzaion gustatu berak play station bat nahi zuelako. Asko kexatu zen eta azkenean ama play station bat erostera joan zen eta zaldia amak zaindu zuen. Play stationa jaso ondoren, Mikel pozik zegoen.

Hurrengo egunean Mikel eskolara joan zen eta bere lagunei kontatu zien zer oparitu zioten. Orduan lagun batek esan zion:

—Zaldia hobe da, esan zure amari zaldia emateko.

Mikel honetaz pentsatzen geratu zen eta jende gehiagori galdetu zion ea zaldia edo play stationa hobe zen. Denek erantzun zioten zaldia nahiago zutela, play stationa baino askoz bereziagoa zelako. Orduan Mikel etxera joan



zen eta amari zaldia eskatu zion. Amak zaldia eman zion baina berak zaindu behar-ko zuen trukean.

Egun horretatik aurrera Mikelek bere zaldiarekin pasatzen zituen egunak eta asko maite zuen zaldia. Elkarrekin oso ondo pasatzen zuten. Baina egun batean zaldia gaixotu egin zen eta albaitariarenera eramán zuten. Albaitariari kontatu zioten zaldiak ez zuela asko jaten, ez zuela ondo lo egiten eta ez zeukala energia askorik, nekatuta zegoela zirudiela.

Albaitariak txerto bat ipini zion zaldiari baina, hala ere, zaldia ez zen sendatu eta azkenean hil egin zen. Mikel oso triste ipini zen eta bere lagunei kontatu zien. Orduan lagun batek esan zion:

—Niri ere berdin gertatu zitzaidan txakur batekin. Gaixotu egin zen eta albaitariarenera eramán nuen. Albaitariak ere txerto bat ipini zion eta hiru egunen ostean hil egin zen.

Hau entzutean, Mikel pentsatzen geratu zen. Oso arraroa iruditu zitzaion bi animaliak modu berean hiltzea albaitari berarekin. Lagunekin hitz egin zuen eta plan bat prestatu zuten albaitaria gaiztoa edo ona zen frogatzeko. Euren ideia hauxe izan zen: albaitariaren kontsultaren aurreko plazan eseriko ziren eta kontsultatik ateratzen zen jendeari galdetuko zioten.

Horrela, ostiral arratsaldean plazan zeuden eta bat-batean, pertsona bat ikusi zuten kontsultatik irteten. Berarengana joan ziren eta bere animalia buruz galde-tu zioten. Andreak, bere katua hil egin zela kontatu zien oso penaturik. Umeek nola hil zen galdetu zioten eta andreak erantzun zien txerto baten ostean izan zela. Horrela, umeek euren froga lortu zuten, baina ez zuten ulertzen zergatik albaitariak animaliak hiltzen zituen. Orduan, bere kontsultaren ondotik pasatzean, albaitaria hitz egiten entzun zuten. Hauxe entzun zuten:

—Ze nazka diedan animaliei! Guztiak hil nahi ditut!

Umeek poliziara deitu zuten eta guztia kontatu zieten. Hasieran poliziek ez zieten umeei sinetsi, baina badaezpada albaitariaren txertoak begiratu zituzten eta pozoitsuak zirela ikusi zuten. Azkenean polizia albaitariarengana joan zen eta kartzelan sartu zuten animaliak hiltzeagatik. Mikel eta ama beste zaldi bat erostera joan ziren.



Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Santutxu-ko plazan.

Sei neska oso arraro

Maialen García Román,
Maestro García Rivero HLHI.

Lehenengo kapitulua: Ezusteko sorpresak!

Baziren behin sei neska oso lagun minak zirenak: Alba, Malen, Irene, Lizi, Maider eta Nerea.

Egun batean, Alba, Malen, Irene, Lizi, Maider eta Nerea EITBra joan ziren bideo bat filmatzera, baina azken momentuan Alba atzera bota zen; esaten zuen inoiz ez zuela bideo batean parte hartu eta oso txarto aterako zitzaiola. Gainerakoak Alba animatzen hasi ziren eta hainbeste animatu zuten, ze Alba haserretu egin zen eta bat-batean botere magikoak zituela konturatu ziren. Bere besoak luzatu eta denak atzera bota zituen!!! Albak ez zuen gertatutakoa ulertzen. Horregatik bideoa utzi eta Ireneren etxera joan ziren. Han gertatu zenari buruz hitz egin zuten. Irenek ere botereak izan nahi zituen, horregatik Albari mota guztietako galderak egiten hasi zitzaion:

—Nola sentitu zara? Zelan egin duzu?...

Hurrengo egunean, eskolan Irenek ezin zuen adi egon denbora guztian Albaren botereetan pentsatzen ari zelako. Berak sua kontrolatzeko botereak izan nahi zituen andereñoaren mahaia erretzeko. Bat-batean, andereñoaren mahaia erretzen

hasi zen eta gela osoak oihukatu zuen; mutilak, ausartak direla itxura egiten dutenak, gehien oihukatzen zutenak ziren; batzuk negarrez zeuden! Baina Alba, Malen, Irene, Lizi, Maider eta Nerea ez, suposatzen zutelako Irenek ere botereak izango zituela.

Irene asko poztu zen bere lagunak ere nahi zuena lortu zuelako. Baina Malenek, Maiderrek, Nereak eta Lizik inbidia apur bat zuten, haiek ere botereak izan nahi zituztelako. Orduan, arratsaldean, laurak batera parkera joan ziren ia eurek ere botereak izango zituzten jakiteko.

Laurek arrazoia zuten: botereak zituzten.

Malenek ura kontrolatzeko botereak zituen: ura lurrundu, olatu erraldoiak sortu...

Maiderrek haizea kontrola zezakeen: haizearekin gauza guztiak alde batetik bestera eraman zitzakeen, eta haizea bere azpian ipintzen bazuen, hegan egiten zuen.

Nereak, berriz, landareak kontrolatzeko botereak zituen: mota guztietako landareak kontrolatu ahal zituen eta landare bat segundo batean haztea egin ahal zuen.

Lizik, azkenik, eguraldia kontrolatzeko ahalmena zuen: tximistak bota, eguzkiak distira egitea lortu...

Alba borrokatzen oso trebea zen. Gorputzeko atal guztiak luza zitzakeen eta borrokan, munduko abilena zen.

Eta dakizuenez, Irenek sua kontrolatzeko botereak zituen: sua sortu, sua mugitu...

Alba eta Irene, besteek ere botereak zituztela konturatzean, asko poztu ziren, azkenean bata ez zelako bestea baino garrantzitsuagoa.

Hurrengo egunean, patioan hizketan ari zirela, zaborrontzi bat zabaldu zen eta neskak barrurantz irentsi zituen. Seiak hasiera batean beldurtu egin ziren. Non zeuden ikustean, ahozabalik geratu ziren. Orduan, aurrean zeukaten mahaian zegoen gizonak (oso itsusia zena) honela esan zien:

—Kaixo eta egunon. Nik San Martin del Peruano Australiano Frances Irlanda dut izena, baina nahi baduzue, Martin dei nazakezue. Beno, hona ekarri zaituztet agentzia honen espiak izateko aukeratuak izan zaretelako. Ah! Agentzia honen izena “Sei Neska Oso Arraro” da.

—Zer ondo!!! —oihukatu zuen Lizik.

—Baina zer diozu!!! —erantzun zioten gainerakoek.

Egun horretan hainbat gauza ikasi zituzten: seiak espiak zirela, sekretua gorde behar zutela eta haien botereak ondo erabili behar zituztela.

Bigarren kapitulua: Lagun berri bat

Egun batean, gelan zeudela, eskolako zuzendaria gelara sartu zen neska batekin. Neskak Vicky zuen izena eta mutilak liluratuta utzi zituen. Patioan mutil guztiak Vickyren atzetik zebiltzan, baina Vicky nekatu egin zen, bakoitzari zaplazteko itzela eman eta alde egin zuen. Sei neskak aho zabalik geratu ziren eta Vicky izoz-

ki batera gonbidatu zuten. Izoikia hartzen ari ziren bitartean, Lizik Vicky fidatzekoa zela pentsatu eta bota zion:

—Botereak ditugu.

Vicky harrituta geratu zen. Gainerakoek erantzun zioten:

—Lizik egia esan du.

Vicky segundo batzuk gelditu geratu eta:



—Nik ere bai. Telekinesia botereak ditut: nahi dudan guztia altxa dezaket, baita neure burua ere, hegan eginez alde batetik bestera.

Guztiak batera eta oso pozik, Vickyren etxera abiatu ziren. Han Vickyren gurasoak zeuden, musikariak ziren eta Capsula izeneko talde batean jotzen zuten. Vickyren gurasoei neskak hain jatorrak iruditu zitzaizkien ze hurrengo astean Hollywood-era joatera gonbidatu zituzten, kontzertu batetara.

Hollywood-en hegazkinetik jaistean Vickyren gurasoek jakin zuten ezin izango zutela kontzertuan jo, horregatik neskak oso triste jarri ziren. Baina Vickyren gurasoek animatu eta esan zieten aste oso bat zutela Hollywood bisitatzeko. Orduan bost izarreko hotelera joan, gauzak utzi eta Hollywood ezagutzera joan ziren. Ezagutzen zuten bitartean, Irenek Michael izeneko mutil bat ezagutu zuen. Denbora osoan elkarrekin zeuden eta Irene bere botereak eta bere lagunak ahazten hasi zen. Neskak eta Vickyren gurasoak kezkatzen hasi ziren ez zutelako Irene inoiz ikusten.

Hurrengo egunean, gosaltzen ari zirela, Irene eta Michael hoteletik joaten ari zirela ikusi zuten eta Michaeli susmo txarra hartu zioten. Irene, lehen aingeru, orain deabru bihurtu zen. Denek pentsatzen zuten Michaelen eraginagatik zela eta Maiderrek mutila jarraitzeko erabakia hartu zuen. Horretarako, bat-batean ikusezin bihurtu zen. Michaeli eta Ireneri jarraitu zien eta bloke bateko gela handi batera joan zirela ikusi zuen. Horrela, Maider itzuli zen eta besteei ikusitakoa kontatu zien; guztiak ikusezin bihurtu ziren. Michael eta Irene zeuden lekura joan eta zerbaitez jabetu ziren: Viridiana izeneko erregina maltzur bat zegoela eta jende asko bere menpean zegoela. Seiak normal bihurtu ziren eta Viridianaren kontra borrokatzen hasi ziren. Nereak beste neskei gauza bat proposatu zien, guztien artean Viridianaren kontra joatea, eta halaxe egin zuten: Lizik bere bizitzan bota zuen tximistarik handiena bota zuen, Malenek olatu ikaragarri bat bota zuen Viridianaren gainean, Maiderrek haizearekin dena azkarrago joatea eta kalte handiagoa egitea lortu zuen, Nereak zuhaitz bat gainera bota zion, Albak bere besoak luzatu eta Viridiana hormaren kontra jarri zuen eta Vickyk atzetik jo eta Viridiana airean altxatzen hasi zen. Honela Viridiana garaitu zuten eta Irene, Michael eta beste guztiak berriro onak bihurtu ziren.

Vicky, Alba, Malen, Irene, Lizi, Maider, Nerea eta Vickyren gurasoak Bilbora oso pozik itzuli ziren. Michael Irenerekin bizitzera joan zen eta neskak eskolan gertatu zitzaizen guztia azaldu zuten baina inork ez zien sinetsi. Haiei ez zitzaizen axola. Haiek ez zuten inoiz esperientzia hori ahaztuko eta gauean zazpiak diskotekara joan ziren Viridiana garaitu zutela ospatzera.



Eskaileren arteko isilgunea

Sofia Blasco Huidobro,
Félix Serrano LHI.

Otsailaren 14a zen. Eskolarekin irteera bat egingo genuen, fabrika zahar batera. Bidean gindoazela autobusean fabrika hari buruzko informazioa bilatzen hasi nintzen mobilarekin. Han zioenez, Jouv maisuaren esperimentu etxea zen. Handia izan arren, berak bakarrik gela batean egiten zituen lanak.

Egun batean arrastorik utzi gabe desagertu egin zen. Nahiko famatua zenez, egun batzuk pasatu zirenean Oxfordeko Zientzia arloan klaseak eman gabe, poliziak bere esperimentu etxera joan ziren. Ez zuten bere gela misteriotsu hori aurkitu, baina heldu bezain laster gutun labur bat ikusi zuten sarrerako atean itsatsita. Hauxe esaten zuen:

“Beste dimentsioaren bila noa, agian ez naiz itzuliko. Horrela bada, emaiozue lantegi hau nire anaia Joanneri”.

Jouv ez zen agertu. Orduan, esan bezala, poliziek bere anaiari eman zioten. Txapelen fabrika txiki bat egin zuen, gaur bertan ikusiko duguna.

Irakurritakoa nire autobuseko kideari komentatu nion.

—Lasai ibili, agian hori dena ez da egia —esan zidan.

Autobusetik jaisteko ordua zen. Euri txaparrada galanta zen. Laster batean autobusetik atera, motxilak hartu eta fabrikarantz hurbildu ginen. Atean bi gizon

jator gure zain zeuden. Fabrikara sartu eta nire lagunarekin taldearen atzealdean jarri nintzen aztertzeko asmoz.

—Beitu ate hori —esan nion ahopean— Jouv maisuak lan egiten zuen gela izan daiteke.

—Zuk uste...

Pixka bat gerturatu, ireki eta... Zelako disgustua! Fabrikan egiten ziren txapelen biltegia zen.

Taldearekin hurrengo gelara joan ginen. Oraingo horretan ez nuen ezer ikusi. 3. gela, 4. gela, 5. gela... Eta ez zegoen ezer misteriotzurik. Fabrika arrunta zirudien. Fabrikak 10 gela zeuzkan, orduan erdia ikusi ondoren jateko ordua zela erabaki genuen. 2. mailakoak ginen, eta maila bakoitzeko 2-3 gela, guztira ia 100 ume, 3 andereño eta 2 maisu. Bi ume joaten baziren, ez ziren ohartuko. Jateko ordua aprobetxatu genuen fabrika hobeto aztertzeko.

1go gela eta ez zegoen ezer; 2. gela ere ez, 3. gela ezta ere... Nekatu samar geunden eta orduan aurkitu genuen gela. Nire laguna eta biok 6. gelara pasatu ginen isilpean. Hainbeste ate eta oraingoa ez zen irekitzen.

Momentu hartan gogoratu nintzen telebistan ikusitako truku batez. Bakarrik plastikozko botila baten zati bat behar genuen. Zatia lortu ondoren, giltzadura ondoko ate zirrikitutik pasatu eta ireki egin zen. Leku hezea zen eta nahiko iluna. Hainbat eskailera zeuden, argirik ez eta nik neraman eskuargiak ez zuen eskaile-
ren amaiera argitzen. Bideari ekin nion.

—Eskailerak jaitsiko ditut. Luzeak dirudite, bai, baina 15 minutu pasa ondoren ez banaiz gelara heltzen, laguntza bila joan.

—Eta nola jakingo dut heldu zarela?

—Luzeak izateak abantailak ditu. Altu hitz egiten badut, oihartzuna entzungo da.

Eskailerak jaisten nindoan. Bi minutu besterik ez ziren pasa eta eskailerak ez ziren amaitzen. Bitartean goian gizon batek nire lagunari arreta deitu eta taldearekin itzultzeko beharra izan zuen.

Orduak pasa zirela iruditu zitzaidan. Erlojuari begiratu eta bakarrik lau minutu pasa ziren erlojua azkenik begiratu nuenetik. Horman begirada jarri nuen, eskuargiaren indargabeko argiak kolore gorriko zinta bat argitzen zidan, zinta pasatu eta... eskailera gehiago!!! Korrika hasi nintzen baina ez ziren amaitzen. Bat-batean gela ilun batean agertu nintzen. Eroriko nintzela sentitu nuen. Beldurrez oihu egin nuen nire lagunak entzuteko asmoz. Alferrik izan zen. Bazter batetik soinu bat atera zen. Entzun eta momentuan soinua atera zen aldera eskuargiarekin argitu nuen. Sagutxo bat zen. Berriro beste soinu bat entzun nuen, oraingoa beste bazter batetik. Lehen egindakoa errepikatu, eta nire begiek ikusitakoa ezin nuen sinetsi! Jouv maisua zen! Interneten jarritako argazkiko itxura zuen. Nik esango nukeen bien artean ez zela denborarik pasa.

—Kaixo! —esan zidan.

—Kai... kaixo.

—Ez izan beldurrik. Ez dizut ezer egingo.

Momentu hartan isiltasuna zen nagusi. Bitartean neure buruari esaten nion: Nola ez dut beldurrik izango!!

—Zer daramazu sorbaldan?

—Motxila bat, ogitarteko bat. Nahi duzu zati bat?

—Ez, ez... hemen jatea ez da garrantzitsua. 60 urte daramatzat jan gabe. 60 urte! Desagertu zenean 45 urte zeuzkan. $60 + 45 \dots 105$ urte! Nola zegoen hain ondo?

—Ez duzula jaten? Honezkero hilda egon beharko zinateke.

—Ez, hau beste dimentsio bat da, Zu zinta gorria zeharkatzean ere beste dimentsio batera etorri zara. Ez duzu kartela irakurri?

—Ze kartel?


—Ah... sagu nazkagarriren batek eramango zuen.

—Nola atera ahal naiz hemendik?

—Ezinezkoa da. Nik denetarik frogatu dut.

—Ezinezkoa dela?!

Jouv jaunak marrazki txiki bat egin zidan dena azaltzeko. Ezin nuen sinestu, bititza osoa han...



—Laztana altxatzeko ordua da!

—Nola?

—Ez bazara altxatzen, eskolara berandu iritsiko zara. Gainera gaur txangoa daukazu!

Berehala altxatu eta eskolarantz abiatu nintzen. Dirudienez amets bat izan zen. Baina Jouv maisuaren antzeko gizon bat ikusi nuen fabrikan. Bitxiena da gizon hark nire izenez deitu zidala.



Lata baten bizitza

Iratxe Pereda Vázquez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Kaixo, ni Coca-Cola lata bat naiz eta nire bizitza kontatuko dizuet. Gaur denda batera heldu naiz, dendari batek kaxatik atera eta beste lata batzuekin jarri nau eta lata batek hauxe esaten dit:

—Kaixo ▼ Ni Kas lata bat naiz. Orain dela aste bat heldu nintzen. Mundu guztiak Coca-Cola nahiago du.

—Ni Coca-Cola lata naiz —esan diot— espero dut jendeak ni erostea, gaur heldu naiz eta.

Horrela, egun osoa egon gara hitz egiten. Jendea aurretik pasatu eta ez du begiratzen ere. Gutxienez Kas lata oso majoa da eta ondo pasatu dugu.

Gaua heldu da eta lo egingo dugu argiak amatatzen direnean. Dendako mutiak dena zarratu eta argiak amatatu ditu. Kas lo geratu da, nik ezin dut. Ez dakit zergatik baina lo egitea oso zaila da.

Gaua pasatu da. Nik ez dut lorik egin baina Kas oraindik esnatzen dago. Mutila heldu da, guztia zabaldu eta barrura sartu da. Gaur jende asko etorri da dendara, lerroa oso luzea da.



—Kas, zergatik dago hainbeste jende? —galdetu diot.

—Gaur barikua da eta umeak plazan dagoz, horren ondorioz, dendara eros-
tera datoz.

Orain guztia ulertzen dut. Zer gertatzen da? Ume batek hartu nau. Horrek
esan nahi du... Ai ene! Dendatik joango naiz ▼▼ Irrikan nago, espero dut ume
horrek ez botatzea lurrera.

Kalean nago. Hau nire bizitzako momenturik garrantzitsuena da. Hainbeste den-
bora itxaroten, eta azkenean heldu da momentua. Zer da hau? Buruz behera nago,



pisua galtzen nabil aaa... ▼▼ Hegan egin dut.

AUU ▼▼ Zelako golpea! Hemen dauden lata
hauek... hilda daude ▼ Uste dut nik... berdin
amaituko dudala... atziss ▼ Zelako hotza
egiten duen, baina ... zer da?

—KLONN ▼

—Zu, nor zara? —galdetu diot.

—Kaixo Coca-Cola, aurrekoa naiz, Kas ▼

—Kas? —esan dut harrituta— zuri ere berdin gertatu zaizu?

—Bai, tristea da, baina beti amaitzen da horrela.

—Zergatik? Zergatik amaitu behar da horrela, zergatik?

—Beti delako horrela.

—Ba nik ez dut hori onartuko, hemendik joan nahi...

—Coca-Cola, non zaude? Coca-Colaaa ▼? —esan du Kasek kezkatuta.

Bat-batean, konturatu naiz neska batek hartu nauela eta... paperontzira bota
nauela ▼▼ Klonn ▼ entzuten da

—Kaixo, berriro Coca-Cola.

—Kas? ▼ —galdetu diot harrituta.

—Bai noski. Arrazoia euki duzu. Ez da beti horrela amaitzen —esan dit irri-
barre batekin.

Azkenean, birziklatu gaituzte, Kasek eta nik kotxe baten atean amaitu dugu.
Hau bai amaiera polita ▼



Amamaren kontakizunak

Unai Vélez Obieta,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

A mamari asko gustatzen zaio antzinako gauzak kontatzea eta guri haiek entzutea. Orduak ematen ditugu bere gauzak entzuten, nahiz eta batzuetan istorioak errepikatu. Kontatuko dizuet gehien atsegin dudana eta beti, nahiz eta askotan entzun, irribarrea eragiten didana:

Mirentxu nire amamaren ahizpa da eta oso alaia baina betidanik oso bihurria eta tranpatia izan da. Hamabi urte zituenean Bilbora joan zen amandre (antzinako oso goiz hazten ziren lanean). Mirenen ugazaba ez zen oso alaia baina gustura zegoen neskatoagaz. Goiz batean Mirentxu, etxea garbitu ondoren, Isabelengana joan zen eta errekaduren bat egitea nahi bazuen galdetu zion. Berak baietz esan zion:

—Mirentxu joan zaitez eta zapateroa (arraina) ekarri, mesedez. Hartu pezeta bat.

Mirentxu Igorrekoa zen eta ez zekien erdara askorik eta gutxiago zapateroa arraina zenik.

Zazpi pisu oinez jaitsi eta gero Henao kalean zapatari (zapatak konpontzen duena) bat aurkitu zuen. Berengana joan zen eta horrela esan zion:

—Zapatari jauna, mesedez, etorri Isabelen etxera.



—Eta nor da Isabel? —galdetu zuen zapataria.

—Ba... etxeko ugazaba eta zu etxera joatea nahi du.

Mirentxuk zapataria konbentzitu zuen eta berarekin abiatu zen Isabelen etxera. Pernando, zapataria, ez zen oso zaharra baina gaztea ere ez eta zazpi pisu igo eta gero oso nekatuta heldu zen Isabelenengana. Atea jo eta han irten zen Mirentxuren ugazaba.

—Kaixo, Miren, eta ... nor da gizon hau?

—Pernando, zapataria —erantzun zuen Mirentxuk—
zuk eskatutako zapateroa.

Isabel barrezka hasi zen eta hain zen bere barrea gogorra, orratz bat zegoen sofa batean eseri zela eta ipurdian mina hartu zuen. Ai...!

Pernando madarikatuka eskailera behe-rantz joan zen —kauen tal, kauen kual—
esanez.

Han zegoen Miren harrituta eta ezer ulertu barik. Isabelek barrezka jarraitu zuen egun guztian.

Gustatu zaizue kontakizun hau?
Barregarria ezta? Ba nire amamak horrelako istorio piloa daki
eta horregatik gustura joaten gara bere etxera.

Bera pozik kontaktzen eta gu gustura entzuten.



C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)





Denbora aurrera doa

Cecilia Fernández Altonaga,
San Adrian BHL

—**D**enbora aurrera doa, Joakin. Hori hala da, eta ondo dakizu.

—Bai, hala da, Joxemari, hala da... —esan nion.

Arrazoi faltarik ez zeukan nire lagunak, nahiz eta esaten ari zena aurkikuntza handirik ez izan. Baina uste dut hamabost urte, zer hamabost? baita hogeitaz ere badirela lagun kataluniar hura bisitan etorri zitzaigula, eta ordutik dena ez da txarrera joan baino. Akordu handirik ez dut baina, oso erratuta ez banago, horrek ere Joaquim zuen izena, nik bezala, baina katalaneraz idatzia. Nire aita gixajoa ere Joakin izan zen, eta ni izan nintzen lehengoa, aitaren izena jarri behar. Lehen horrela zen dena, seme-alabek gurasoen izena hartzen zuten, edota jaiotako egunaren santuarena. Horrela izaten genituen Eufrosia bezalakoak. Baina, izena oso polita ez izan arren, ez zuen asko inporta, gero beti ezizenetik deitzen ginen.

Orain, berriz, gazteek guztiz izen arraroak dituzte. Kaletik joan eta betiko auzokoaren semea eta bere emazte ezkonberriak topatu eta ume bat itxaroten dau dela esatean, zerbait galdetzearren, ea izenik pentsatuta baduten itaundu, eta han non ateratzen diren “Mutiltxo bada Kevin izango da, eta neskatila bada, Ainitze daukagu pentsatuta”. Orduan, irribarre egin eta oso izen polita dela baino ezin da

esan. Ez al dira politak bada, Iñaki, Asier, Josu edo Karmen, Amaia eta Mari?? Ez dago izen arraroak ipintzeko beharrik, gizon! Baina ezin diezu horrelakorik esan; beraz, izen ederrak direla esan eta aurrera egin beharko.

Hala ere, ez ginen izenei buruz ari, beti bezala desbideratu egin naiz; hala esaten dit nire emazteak, beti punta batean hasi eta bestean bukatzen dudala, hasieran esan behar nuena aipatu ere egin barik.

Bada, hori, Joaquim hori etorri zenetik gauzak arrarotu egin dira hemendik, edo hori iruditzen zait niri. Lehen, adibidez, egunero igotzen ginen oinez menditxo hartara, eta bertako tabernan zertxobait hartu eta edozeri buruz aritzen ginen berbetan. Edozer: familia emakumeak, kirola, dirua... Diruari buruz trankil egiten genuen berba, beldur barik, ez orain egiten den bezala, hain urduri, hain konplikatu. Guk lehen lan egiten genuen eta ordaindu egiten ziguten. Diru hori bankuan gordetzen genuen, eta atera behar bagenuen kartilarekin bankura joan eta behar zena hartzen genuen. Ez genituen gastu asko eta nahikoa zen dirua astean behin edo tabernara joan eta baita lagunekin kartetan apusturen bat egiteko. Gabon inguruan apur bat gehiago gastatzen genuen, noski, eguberrirako ezgauzaren bat erosten baikenuen. Baina ez ginen orain bezala ibiltzen, hain kezkatuta zer izango ote den, zer ez. Horrelakorik ez genuen guk, eta dirudunak ere ez ginen. Hori bai, ez genuen bigarren etxerik, eta Juan Pedrok izan ezik, autorik ere ez. Igual hori izango da.

Orain, berriz, gero eta gutxiago igotzen gara tabernara, eta oinez urtean behin edo bitan, eguraldi paregabea egiten duenean, uda benetan sartu aurretik, ekainean edo. Goazen gehienetan autobusez igotzen gara, baita jaitsi ere. Badirudi aldapa luzatu egin dela, horrenbeste kostatzen zaigu-eta.

Nire ustez, kataluniar hori izan zen dena hasi zuena, gizon txit arraroa baitzen. Joxemarik berak gonbidatu zuen gurera, eta uztailen bere soldaduskako laguna zetorrela esan zigun. Aste pare bat baino gehiago ez dut uste geratu zenik, eta gizon nahiko majoa zen, batez ere emakumeekin. Herriko emakume guztiak poz-pozik zeuden harekin, hain zen arretatsu eta kabilerosoa. Gazte pare batek ere galdetu omen zioten Joxemariri bere laguna soltero bazegoen.

Horrek gu ez gintuen pozten baina, zer egin genezakeen, bada, gure emazteekin sartzen ez zen bitartean...

Baina horretaz aparte, gizon sinpatikoa zen, nahiko alaia. Kartetan inor baino abilagoa, hori ere esan beharko. Hasieran kostatu zitzaigun bera ulertzea, hain azentu itxia baitzuen erderaz hitz egitean. Joan orduko, berak ere aitortu zigun kostatu zitzaiola gure erdera kaxkarra konprenitzea (kaxkarra neuk diot, berak kostatu zitzaiola besterik ez zuen esan).

Seguru nago, bai, bera etorri zenetik hasi dira izenak aldatzen, jabeak aldatzen, aldapak luzatzen eta lepoak makurtzen. Ez dena kolpetik, jakina, baina geldiro-geldiro, lehenengo hau eta gero bestea, dena aldatu da.

—Denbora aurrera doa, Joakin, esana dizut.

—Badakidala, Joxemari, ez niri sermoirik bota.

—Bada, orduan, zer diostazu?



Homosexuala naiz

Laura Zabala Domínguez,
San Adrian BHI.

Mikel deitzen naiz, 15 urte ditut eta Getxon bizi naiz. Oso mutil azkarra naiz ikasketetan, baina ez daukat lagun asko, ez dut inoiz eduki lagun asko. Beti oso bakartia izan naiz. Nire etxean lau gara: ama, aita, arreba eta laurok. Baina, beno, duela bi urte ez dudala nire aitarekin hitz egiten arrazoi honengatik.

Hasieran esan dizuedan bezala, inoiz ez dut izan lagun askorik, baina batzuetan neskekin jolasten nuen panpinetara, dantza egitera... nesken jolasetara, inoiz ez futbolean edo mutilek normalean jolasten duten jolasetan. Mutil askok nitaz barre egiten zuten, baina niri bost axola.

Egun batean, DBHko 1go mailan nengoela, mutil berri bat ezagutu nuen, beste eskola batetik etorritakoa. Bat-batean niregana hurbildu zen eta nirekin hitz egiten hasi zen, betiko galderak egiten hasi zitzaidan (Nola deitzen zara?, Zenbat urte dituzu?...). Eta nik nire lagun mina balitz bezala erantzun nion. Berak niri ere erantzun zidan galdera berdinei: Gorka deitzen dela eta 16 urte zituela, ni baino urte bat handiagoa zela... Klaseak amaitu ondoren esan zidan ea hurrengo egunean nahi nuen bere etxera joan arratsaldeko 6etan eta nik pentsatu gabe baietz erantzun nion. Uste dut hura nire bizitzako egun hoberena izan zela.

Hurrengo egunean oso pozik jaiki nintzen ohetik eta oso azkar prestatu nintzen berriro eskolara joateko eta berriro nire lagun berria ikusteko. Normalean

askoz gehiago kostatzen zait altxatzea, baina egun hura ez zen bestea bezalakoa. Institutura ailegatu nintzenean, atean ikusi nuen eta berarengana joan nintzen, biok batera sartzeko. Patioan geundenean esan zidan gauza garrantzitsu bat esan behar zidala, eta ni entzuten jarri nintzen. Bat-batean esan zidan berari ez zaizkiola neskak gustatzen, berari mutilak gustatzen zitzaizkiola, homosexuala zela. Ni aho zabalik geratu nintzen eta galdera bat bota nion:

—Noiztik?

—Duela hiru egun, zu ezagutu zintudanetik.

Ni oraindik aho zabalik nengoen oso harrituta. Eta esan nion:

—Baina nik pentsatzen nuen lagun minak ginela.

Berak hau entzutean esan zidan:



—Igual, lagunak baino gehiago izan ahal gara, hau da, nobioak.

Bat-batean txirrina jo zuen eta denok klasera joan ginen. Nik ezin nuen beste gauza batzuetan pentsatu eta etxerako bidean pentsatu nuen ez zela izango gauza txarra biok nobioak izatea, gauza berriak frogatzea, homosexuala izatea. Gero, etxean

nengoenean, nire gurasoei eta arrebari esan nien homosexuala nintzela eta arrebak beti bezala nitaz barre egin zuen eta bere logelara sartu zen. Nire aitak ez zuen hitzik egin. Bera beti homosexualaren kontra egon da eta bere umea homosexuala zela jakiteak ez zion grazia askorik egin. Ama izan zen onartu zuen bakarra.

Nire aitak nirekin hitz egiteari utzi zion eta badaramagu 2 urte ez dugula elkarrekin hitz egiten. Ni eta Gorka nobioak gara eta oso pozik gaude. badaramatzagu 2 urte eta nire bi urte hoberenak izan dira. Gorkak nire bizitza aldatu du. Eta nire aitak jarraitzen du ulertu gabe. Nire aitak ulertuko balu, munduko pertsona alaiena izango nintzateke.

Hurrengo egunean Gorkarekin topo egin nuen institutuan:

—Aupa, Mikel!

—Kaixo, Gorka!

—Mikel, nire gurasoekin hitz egin dut gutaz eta esaten dute ezagutu nahi zaituztela.

—Bueno, ba zuk nahi duzunean.

—Gaur nire gurasoen etxera etorri nahi duzu bazkaltzera?

—Primeran! Baina nire amari deitu behar diot ez dudala etxean jango esateko.

—Ez, ez deitu horretarako. Esan zure gurasoei eta arrebari ere jatera etortzeko.

—Baina nire arrebak nitaz barre egiten du eta nire aitak ez du onartzen ni homosexuala izatea!

—Ikusiko dugu ea nire gurasoekin hitz eginda hobeto ulertzen duten.

—Bale, ba, etxera joango naiz prestatzera eta nire gurasoei esatera. Ea nola onartzen duten.

Etxera joan nintzenean denak egongelan zeuden eta denei esan nien:

—Gorkak gonbidatu gaitu bere gurasoen etxera bazkaltzera. Denak niri begira geratu ziren eta nire amak bota zuen:

—Ederto! Denok joango gara, Mikel. Oraintxe bertan prestatuko gara.

Telebista amatatu zuen eta bakoitza bere logelara joan zen prestatzera. Ni bakarrik geratu nintzen egongelan. Inoiz ez nuen pentsatuko hain ondo hartuko zutela Gorkaren etxera joatea bere gurasoekin jatera. Nire logelara sartu nintzen eta “guapo-guapo” jarri nintzen. Egongelara joan nintzen eta denak prest zeuden, oso ondo jantzita. Atetik atera ginen eta Gorkaren etxera abiatu ginen. Ailegatu ginenean Gorkaren gurasoak ezagutu genituen eta bakoitzari bi musu eman nizkien. Nire familiak berdin-berdin egin zuen eta jateko mahaian jesarri ginen guztiok. Jaten hasi ginen eta, nola ez, Gorka eta bion arteko gaia atera zuten. Gorkaren gurasoek nire gurasoei esan zien ez zela gauza txarra eta nire aitak esan zuen berak ez zuela nahi bere semea homosexuala izatea. Guztiok isilik geratu ginen eta Gorkaren aitak esan zuen:

—Nik hasieran ez nuen hain ondo onartu nire umea homosexuala izatea, baina pentsatzen hasi nintzen. Nik nire umea maitatzen dut eta berari mutilak gus-tatzen bazaizkio, nik zer egingo dut? Berak nik baino hobeto jakingo du sentitzen duena, bere gustuak... Eta oso ondo onartu nuen.

Bat-batean nire aitak hitz egin zuen eta esan zuen: “Egia esan, arrazoi osoa duzu”. Jarraian Mikeli barkamena eskatu zion, eta besarkada bat eman zion.

Mikelek bere aitari esan zion: “Eskerrik asko onartzeagatik”. Eta besarkada bat eman zion.



Maite zaitut, Bilbo

Izekoren oroitzapenetan

*Telmo Briones Basauri,
Miguel de Unamuno BHI.*

Goiz eguzkitsu bat da. Kotxe barruan nago. Getxoko Portu Zaharrerantz goaz. Nire alboan, nire izekoaren errautsak ditut latazko kutxa baten barruan. Berataz oroitzen ari naiz; bere aurpegiaz, bere ileaz, bere eskuez... Baita bere bizitzaz ere, bizitza zaila eta zoragarriaz.

Bilbon jaioa, hamabi anai-arreben neska nagusia zen. Oraindik eskola bukatu gabe zegoela gerra heldu zen eta hankaz gora jarri zuen bere bizitza eta bere etorkizuna.

Aita eta neba nagusia frontera gudariekin joan ziren eta amarekin geratu ziren gainontzekoak Frantzia aldera bidali zituzten sakabanatuta. Txikienak frantziar familiekin eta nagusienak ikastetxeetan, haien artean ikusi gabe egon ziren Frantzia eman zuten denbora osoan.

Gerratea amaitu eta gero, guztiak itzuli ziren Bilbora, baina galtzaile itzuli zirenez ez zuten etxerik ezta lanik ere. Aita Larrinaga espetxean gaixotu zen eta tuberkulosiak jota hil zen.

Oso urte gogorrak igaro zituzten. Ia dirurik gabe, denak hasi ziren lan egiten, bakoitzak ahal zuen lekuan, baina izeko Marujak etxeko lan guztiak betetzen zituen, goiz-goizetik ilundu arte.

Lan honetaz nekaturik, ia hogeita hamar urte zituenean, Erresuma Batura joan zen ingelesik jakin gabe eta papertxo puska batekin. Papertxo hartan Eskoziako gaztelu baten helbidea zegoen idatzirik.

Leku batean eta bestean galdezka, hara iristea lortu zuen. Han neskame gisa egon zen lanean bi urtez gutxi gorabehera. Baina ingeles pixka bat ikasi zuenean, handik joan eta Londresera abiatu zen.

Londresen, moja espainiarren laguntzaz, Lord baten etxean giltzazain lan egitea lortu zuen. Lord honek katuak maite zituen eta etxean hogeit bat katu zituen gutxienez. Urteak joan urteak etorri, Lord hura hil egin zen eta bere oinordetza katuei utzi zien. Horri esker, Maruja urte batzuk gehiago egon zen dirua irabazten, azken katua hil arte.

Izekok Londresen mutil lagun bat izan zuen, baina ezkontzekotan zirelarik istripu bat izan zuten. Istripuan izekoaren mutil lagunak bizitza galdu zuen eta izekoa urte batez egon zen ospitalean.

Nagusitu arte egon zen giltzazain lanean eta erretiroa hartu zuenean ez zen Bilbora itzuli, guk eskaini izan genion arren.

Gu urtean birritan joaten ginen Londresera izekoari bisita egitera. Oraindik gogoratzen dut bere logelako horman eskegita zuen ikurrina eta Portugaleteko Zubiaren argazkia.

Orain emakume honen bizitza osoa nirekin kotxean doan kutxatxo txiki honetan dago. Malko bat agertu da nire begietan. Agian izeko berriro ikusiko ez dudalako, agian leku hobean dagoelako, edo agian ziur nagoelako berak bizitako bizitza maite zuen lekutik urrun eman zuelako.

Izekok hilerok bidaltzen zizkigun eskutitzen amaiezez gogoratzen ari naiz: **MAITE ZAITUT, BILBO.**



Angel eta ardiak

Guillermo del Pozo Garrido,
San Adrian BHI.

Angel 14 urteko mutila zen eta Errioxako herri txiki batean bizi zen. 1917. urtea zen. Aitonek esaten duten bezala bizitza ez zen hain polita, bizitza oso gogorra zen. Angel artzaina zen, eta egun osoa pasatzen zuen mendian ardiekin... Zelako “planazoa”...! Ulertu behar da garai hartan ez zegoela ez Play Station, ez Whatsapp, ez Tuentirik... Dibertigarriena zen herriko plazan bote-bote-
ra, kaniketara edo Txorro-morro-piko-taio-ke-ra jolastea. Baina gure Angel ez zegoen herriko plazan, beti zegoen mendian. Angel, umezurtza zen eta orduan ez zeukan denborarik jolasteko, lan egin behar zuen bizitzeko. Baina berak ez zekiena zen urte bat baino arinago bere bizitza aldatuko zela...

Egun batean herriko plazan entzun zuen herrira gauza berri bat helduko zela, “elektrizitatea”. Herriko jende guztiarentzat gauza berri bat zen eta ez zekiten zer arraio izango zen hori.

Aste batean hasi ziren kamioiak heltzen. Angelek ikusten zuen kamioietan zuhaitz antzeko poste batzuk bi gauza zurirekin, zeramika antzeko piezak. Laster hasi ziren poste horiek jartzen. Denak jarrita zeudenean, errepidearen ondoan jarri zuten txabola txiki bat eta bi kristalezko pieza. Angelek kuriositate handiz galdetu zion tekniko bati ea zer zen txabola hori, eta teknikoak esan zion: “Hau elektrizitatea garraiatu eta aldatu egiten duen txabola da”. Angeli gauza hori ikaragarria iru-

ditu zitzaion eta hasi zen teknikoei gauza asko galdetzen. Teknikoek ikusi zuten Angel pertsona inteligentea zela, bakarrik bi astetan den-dena jakinarazi zioten.

Egun batean teknikoek hitz egin zuten lan-buruarekin eta Angel kontratatu egin zuten. Angelek ardiak utzi zituen eta elektrizitatearekin hasi zen lanean.


Angelen bizitza guztiz aldatu zen egun hartatik: hasi zen bidaiak eta bidaiak egiten, herrietara elektrizitatea garraiatzen poste horiekin eta zeramikako piezekin. Oso pozik zegoen, jendearen bizitza hobea izango zelako. Pertsona guztiak ilusio-natuta zeuden magia gori harekin. Neguko gauak ez ziren izango hain ilunak, maki-na berriak zeuden lantegietarako...

Angel hazi zen eta gehiago ikasi zuen. Herri batean mutiltxo bat ikusterakoan bere haurtzaroa gogoratzen zuen eta pentsatzen zuen berak oso zorte ona eduki zuela eta bizitza nazkagarri hartatik alde egin zuela.

Angelek bi seme-alaba eduki zituen. Bi seme-alaba horiek beste seme-alaba batzuk eduki zituzten. Horietako bat nire aita da. Askok gustatzen zait nire aitak bere aitonaren bizitza kontatzen didanean, nire bizitzaren antza handia duelako. Baina ni ez naiz artzaina, ezta umezurtza eta gainera Samsung Galaxy bat dut Whatsapp eta lerdokeri guztiekin.

Gauza oso kurioso bat da. Niri asko gustatzen zait Errioxako herri abandonatuak bisitatzea eta txabola elektriko horiek bisitatzea. Imajinatzen dut duela 95 urte nire birraitona txabola horietan lanean, transformadoreak ipintzen. Eta orain nik heredatu egin dut elektrizitatearekiko pasio hori.

Errioxara joaten naizenean, herrira, aitonak esaten dit "Ai chiguito, como te pareces a tu bisabuelo, detrás de las casetas de los transformadores. A ver si vas detrás de las mozas, que también estan muy bien".



Irribarre horiek atzean uztea

Gorka Mediavilla Briones,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.

Bamako, 2010eko apirilak 23

Aita hil dute. Banekien drogaren inguruko mundu hori ez zela fidatzekoa, arazoak ekarriko zituela, eta horrela izan da. Bizitza ez da erraza izango. Beste diru iturri berri bat bilatu beharko dugu, bestela familia ezin izango dugu mantendu.

Bamako, 2010eko maiatzak 2

Lanbide erraza bilatu dut: kalean dabilzan gorbatadun gizonei zapatak garbitzen dizkiet diru gutxiren truke, ziurtatuta dagoelako haiek ez dutela diru falta. Herrialde pobreetan ez gara pobre dirurik ez dugulako, baizik eta dutenek ez dutelako ematen. Desoreka ekonomikoa izugarria da. Jateko behintzat badaukagu, baina diruaren zati gehiena gordetzen dut bidaia bat ordaindu ahal izateko, giro honetatik atera ahal izateko.

Bamako, 2010eko ekainak 8

Beharrezko dirua biltzea lortu dut. Alde egitera noa, iparralderantz, Espainia-ra. Etorkizun hobe izan nahi dut, pobrezia atzean utzi eta bizitza behar den beza-

la bizi ahal izatea. Familia hau aurrera aterako dut. Beldur naiz baina irrikatan nago. Bidaia honek arrakastara hurbilduko nau ondo ateratzen bada, baina horrela ez bada, porrota kopetan bertan izango dut, eta izugarria izango da.

Bamako, 2010eko ekainak 10

Bidaia gaur hasiko da. Neure familia agurtu dut. Oso gogorra da jakitea beharbada ez dituzula berriz ikusiko. Irribarre horiek atzean uztea, une zoragarri horiek berriz ez bizitzea. Beste zenbait gizonekin kamioi batean Afrikako iparralde osoa zeharkatuko dut. Bidaia luzea eta gogorra izango da.

Algeria, 2010eko ekainak 19

Bizirik irauten dut. Bamakotik hona zenbait gizon hil dira! Gosea nabarmena da eta ez dakit hurrengoak ni izango ote naizen. Zama horrekin bidaia egitea ez da erraza. Zalantzan jartzen dut bidaia hau, hau guztia.



Maroko, 2010eko ekainak 28

Kostaldera heldu naiz, Marokora. Bizirik irauten dut. Nire helburua gero eta hurbilago dago. Hemen geratuko naiz zenbait astetan. Lan bat bilatu beharko dut, baina ez da erraza izango. Ez dut inor ezagutzen eta hizkuntza ezezaguna da. Herrialdea ere bai, jendea ere bai... Dena. Eta aurrera jarraitzea da egin ahal dudana gauza bakarra.

Maroko, 2010eko uztailak 5

“Lana” aurkitu dut. Bai, “lana”. Diru nahikotxo ematen didate “hachis” bolatxo bat Espainiara pasatzearen truk. Arrisku handia dauka, badakit. Baina beharrezkoa da. Behin zin egin nuen hau ez nuela berriz ikutuko, aitari gertatukoakin eta gero. Eta ez nuke berriz ikutuko, beharrezkoa izango ez balitz.

Maroko, 2010eko uztailak 9

Hondartzako bidean nago. Patera gaur itsasoratzen da. Itsasoak erabakiko du.

Sydou naiz, 19 urteko mutila. Bamakon (Malí) jaioa. Pobrezia, sufrimendua eta borroka neure bizitza hobekien deskribatzen zuten hitzak ziren. Hori aldatzea zen helburua, borroka egiteko arrazoia, neure familia egoera horretatik ateratzea. Hori gertatu ahal izateko bidaia bat egin nuen. Baina ez bidaia normal bat, sufrimenduz beteriko bidaia. Gosea kide kenduezina zen. Baina azkenean neure helburua lotu nuen.

Espainia, 2010eko uztailak 13

Betirako itxarongo dizut

Celia Calcedo Roda,
Gabriel Aresti BHI.



“**I**txaron, bakarrik itxaron” Horiek izan ziren bere azken hitzak.

Banku batean nago eserita, euria egiten du. Euri tantek nire gorputza jo eta txirristatu egiten dira beherantz. Berak oparitutako takoizko zapata gorriak daramatzat ipinita. “Itxaron, bakarrik itxaron”. Hitz hauek bueltaka ari zaizkit buruan gelditu gabe. Ezin ditut burutik kendu. Horrela hiru egun daramatzat, hemen jesarrita, hitz horiek errepikatzen bata bestearen atzean, berriro, berriro eta berriro. Nire bihotzaren taupadak geroz eta lasaiagoak dira. Ez dut ez gose ezta egarririk ere sentitzen. Bakarrik mina, min handia, oso handia; kamioi bat nire gorputzaren gainera erori izan balitz modukoa, nire bihotzean zulo handi bat eginez.

Neure buruari milaka aldiz esan diot: “altxatu, etxera joan, eta ez itzuli inoiz. Bera ahaztu, ez da bueltatuko, joan egin da”. Baina ezin dut. Ez naiz hain indartsua, nire hankak, besoak eta bihotza ahul daude, indargabeturik.

Bera joan zen eguna nire urtebetetzea zen. Altxatu bezain laster nire lehengo oparia izan nuen. Inoiz ikusi ditudan zapatarik ederrenak. Gorriak, takoiarekin eta tira batekin erdian, lore txiki polit batekin zapatak oinari lotzeko. Kotxea hartu eta hiriaren kanpoaldera joan ginen nire hurrengo oparia hartzeko, han ezku-

tatuta zeukan eta. Askotan joaten ginen zelai haietara eta pik-nikak egiten genituen. Han arratsaldea pasatzen genuen mundutik aparte, gu biok gure maitasunarekin. Baina egun hartan desberdina izan zen. Kotxea aparkatu eta errepidearen ondoan zegoen bankuan esertzeko esan zidan. “Itxaron segundotxo bat hemen, dena prestatzera noa eta gero itzuliko naiz zure bila” esan zidan berak ahots atseginarekin. Baina nik insistitu egin nuen: “Ez, zurekin joan nahi dut, ez dut nahi hemen bakarrik aspertzen geratu nahi! Zin dizut ez dudala ezer ikusiko”. Orduan




berak, begietara begira, erantzun zidan: “Itxaron, bakarrik itxaron”. Eta zelaira sartu zen.

Hurrengo hogeit hamar minutuak amaitu ezinak izan ziren niretzat, baina azkenean hurbiltzen ikusi nuen urrunetik. Niri begira zegoen, irribarretsu. Baina errepidea gurutzatzean gertatu zen nire mutilaguna hil zuen istripua. Hortxe bertan, nire begien aurrean, bi metrotara. Autobus bat pasatu eta harrapatu egin zuen, bizitzan gehien maite nuena kenduz; horrela, bat-batean.

“Itxaron, bakarrik itxaron”. Hitz horiek ez ditut inoiz ahaztuko. Kasu egingo diet, itxaron egingo dut, bakarrik itxaron. Hemen geratuko naiz nire gorputza guttiz deshidratatu arte eta nire bihotza taupadak ematen gelditu arte. Bai, hori egin-

go dut, horrela berarekin egongo naiz berriro, baina zeruan. Hori da momentu honetan gehien nahi dudana, eta orduan nire azken irtenbidea itxarotea izango da.



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Gerra ez da abenturak bizitzera joateko

*Iñigo Garcia Cobián,
Berrio-Otxoa HLBHIP.*

Kostaldeko herri txiki bateko arrantzaleak ginen mezularia ailegatu zenean. Erresuma lapurtu nahi zuen noble bat agertu zela oihukatu zuen eukaristia amaitu zenean, eta gure eginkizuna Jainkoak aukeratutako erregea defendatzea zela. Herriko gizon eta gazte guztiek entzun zuten eta guztiok borrokara joatea erabaki genuen. Aukera aparta zen urteetan zehar entzun genituen istorio izugarriak ikusteko eta, agian, bat sortzen laguntzeko. Joan ez ziren bi gizon bakarrik zaharrak ziren, gerra ez zela heroien istorioak zioten, beldurrezkoak baino ikaragarriagoak zirela. Guztiok barre egin genuen haien hitzez, baina ez genekielako nola izango zen gerra.

Eguna ailegatu zenean malkoak egon ziren gure seme-alabengan eta emakumeengan. Gizonak, berriz, poz-pozik joan ginen abenturak bilatzera. Kanpamentuan gure jauna Dostorres Kondea zela jakin genuen eta usurpatzailearen ejertzittoa gurea baino hamar aldiz txikiagoa zela. Gainera, bi aste geratzen ziren batailetan parte hartzen hasteko. Egun haiek azkar pasatu ziren eta guk moral altua geneukan.

Lehenengo bataila hasi zenean gauza bat gogoratu genuen: ez ginen ejertzitoto profesional bat, lau makila zituzten mila nekazari, errementari eta arrantzale baidizik. Horrexegatik bataila iritsi zenean gehienak paralizatu egin ziren, gero lurrera jaisteko bizirik gabe. Nire lagun onenak, nire familia... Asko hil ziren, baina ni

borrokatu nintzen nire espata-makilaz eta beldurtuta zeuden gazteak hil nituen, baita bere bizitza kontserbatzeko belaunikatu ziren gizonak ere. Guztiak hil nituen.

Bataila amaitu eta gero, handik gertu zegoen herrixka bat arpilatzen saiatu ziren gizon batzuk, baina gure jaunak haien buruak ekartzea eskatu zigun. Nire lagun bat haiekin zegoela nekien eta, nahiz eta lagun gutxi geratu, ez nuen bi aldiz pentsatu, espata batez burua bere gorputzetik banatzean.

Hurrengo egunetan beste bataila batzuetan borrokatu nintzen, zauriak jasoz eta alargunak sortuz. Egunak azkar pasatzen ziren eta laster ezin izan nituen zenbatu egon nintzen batailak, baina bai ezagutzen nituen gizonak: lau. Nire anaia guztiak hilak, nire lagun onenak bezala. Geratzen ginenok elkarrekin borrokatzen ginen, inork ez hiltzeko. Ez zuen ezertarako balio, gaixotasunak azkar zabaldu ziren eta janaria murriztu zen. Kanpamendu osotik zabaldu zen gaixotasun hura eta gure jaunak gaixoak hiltzeko esan zien beren soldaduei. Kanpamenduan sortu zen beste bataila bat, gaixoen lagunak sadikoen kontra. Sadikoak gehienak ginen. Bat-batean gizon batek oihukatu zuen gure jaunaren bekatuak izan zirela gaixotasuna sortu zutenak, beraz, gure jauntxoa eta haren basailuak hil zituzten.



Gertu zeuden usurpatzaileen tropak heldu zirenean kanpamendu guztia arpilatu zuten, eta ez zegoen inor gure kanpamendua defendatzeko. Bizirik iraun genuenak baso batean ezkutatu ginen, eta azkar hasi zen anarkia sortzen. Indartsuenak besteen jeneralak izendatzen ziren, eta haiekin egon nahi ez zutenak laster egoten ziren tripak berriro barrura sartzen saiatzen.

Neu ere hamalau gizoneko talde txiki baten jenerala izendatu nintzen. Iparraldera bueltatzea erabaki genuen, baina herrixka bat ikusten genuenean haien animaliak hil, haien dirua lapurtu, eta haien emakumeak bortxatzen genituen...

Baina laster amaitu zen guztia, egun batean herri bat ikusi genuenean hango biztanleak defendatu egin ziren. Ez ginen ailegatutako lehenengoak. Emakumeak, umeak eta atsoak. Haiek izan ziren hamaika bataila bizi genituen hiltzaileon amaiera. Ezer gehiago ez guelako borrokatzen ginen, baina talde batek heriotza gus-tuko jasoko zuen eta jaso zuen.

Nik ez zaitut ahaztuko

Oihane Durán Arbaiza,
Gabriel Aresti BHI.

Egunero bezala, eskola ostean aitonaren etxera abiatu nintzen. Ez nuen egun bikaina eduki, ez horixe. Ez zen egun ona izan, normala izan zen, eta horrekin esan nahi dut txarra izan zela.

Kaletik nindoan bitartean alde batera eta bestera nengoen begira, Aitor eta bere koadrilakoak atzetik zebiltzan ikusteko asmoz. Ez zen inor kaletik, bakarra nintzen, eta horrek lasaitu egiten ninduen. Lurrera begiratu eta nire oinetako zaharrek egin nuen topo. Laugarren zulo bat aurkitu nien nire lehengusuak pasatutako Victoria haiei. Lau urte pasatuak ziren, baina oraindik, baneramatzan.

Nire familian ez ginen inoiz diru mordokoak izan, eta gure janzkeran antzematen zen. Eskolako ume guztiek urtero zituzten Olentzerok ekarritako zapata berri samarrak, eta nik bitartean lehengusuren baten oinetako zaharrak neramatzan. Esaten dute dirua ez dela dena, diruak ez duela zoriontasuna erosten, baina nik esan diezazuket laguntzen duela. Eskolan beti egon naiz aparte, bakarrik, ez bainintzen modan, ez nintzen taldean egoteko modukoa, eta horrekin esan nahi nuen ez neukala nahiko dirurik.

Honetan guztian pentsatzen nindoan bitartean ez nintzen konturatu dagoneko aitonaren atariaren ondoan nengoela. 3.B-ra deitu eta pazientziaz itxaron nuen atea ireki zidan arte. Lasaitasun osoz hasi nintzen eskailera zahar haiek igo-

tzen, egunen batean bat apurtuko zitzaidala konbentzituta. Aitonaren solairura ailegatzean, txirrina jo eta berehala ireki zidan atea. Nire aitonaren etxera joaten nintzen unea zen eguneko onena.

Egunero bezala, ea nire eguna ona izan zen galdetu zidan, eta nik baietz. Nire aitona Eusebio —horrela deitzen zen bera— bere 82 urteetarako ez zegoen batere txarto, etengabe zebilen hemendik hara, handik hona. Beti haserretu egiten zen agure zahar eta tontoa bezala tratatzen zutenean, baina bera ez zen batere tontoa, berak bazekien noiz nenbilen gezurretan eta noiz esaten nion egia, baina ez zuen ezer gehiagorik gehitu nire egunari buruz. Gero, egunez egun egiten zuen moduan, txokolatzeko ogitartekoa eta laranja bat atera zizkidan, etxerako lan asko nituen galdetzen zidan bitartean, baten, bitan, hirutan... eta hamaika aldiz gehiago! Zer gertatzen zitzaion? Minutu erdian hamar aldiz galdetu zidan ea etxerako lanak nituen, eta nik ezetz eta ezetz. Hau ez zitzaidan inoiz gertatu, Aitona Eusebio ez zegoen beti bezala, eta horrek larritzen ninduen.

Hurrengo egunean, aitonaren etxera ailegatu nintzenean hitzun zegoen. Pozik ikusten zitzaion eta horrek pozten ninduen ni. Nire askariaz ahaztu eta hitz eta pitz egin zuen, bera gaztea zeneko hamaika abentura kontatu zizkidan, eguneko berriak, aurreko auzokoarenak... Gero galdera saioa etorri zen, ea neska laguna neukan, zelan nindoan ikasketetan, eta azkenik zein mailatan nengoen. Eta horri bueltak eta bueltak ematen zizkion: “Eh, Asiertxo!! Zein mailatan zaude zu? BUP-a bukatuta edukiko duzu jada, ez da ba??” eta nik “Aitona, orain ez dago BUP delakoa, DBH-ra noa, 4. mailara”. Ez dakit sinesten zuen, ez zuen entzuten edo denbora pasatzeko galdetzen zidan hori, baina 20 aldiz baino gehiagotan galde egin zidan gauza bera. Déjà-vu bat bezalakoa zen, non aitona “erre ke erre” zebilen niri plastada ematen.

Etxerako bidean, aitonarengan pentsatzen ari nintzen, konponbide edo erantzunen bila, eta gauza bakarra bururatu zitzaidan. Etxera ailegatzean ordenagailua hartu eta sarean murgilduko nintzen, zerbait aurkitzeko esperantzaz.

Atea ireki eta berehala itxi egin nuen, azaroko haize hotza etxera sartu ez zedin. Gurasoak agurtu eta azkar sartu nintzen nire logelara. Motxila lurrera bota eta ordenagailua piztu nuen. Martxan jartzen zen bitartean, pijama jantzi eta disko bat aukeratu nuen, Esne Beltzaren azkena. Nire mahaitxo putre eta zaharkituan utzi nituen koaderno bat eta boligrafo pareia. Ondoren aulki batean eseri nintzen, duela 12 urtekoa, torloju batzuk faltan zituen, moderno baino modernoagoa. Eskumako eskuarekin hartu nuen sagua, ezkerrarekin bloka ireki eta boligrafo beltzarekin marrazki ziztrin batzuk egiten nituen bitartean. Azkenean, kargatu zuenean, nire atzamar lodi eta zikinekin tekleatu nuen hitz madarikatua: Alzheimerra. Adi-adi irakurri nuen horri buruz idatzita zegoen guztia. Koadernoan idazten hasi nintzen interesatzen zitzaidana, bi zutabe eginez: boligrafo beltzarekin gauza txarrenak ipiniko nituen, urdinarekin berriz, gauza ez hain txarrak. Bukatu nuenean, bi zutabeak konparatu nituen. Beltzez idatzita zegoenari erreparatu nion gero. Bi orrialde eta erdi luzatzen zen, bestea orri batera nekez ailegatzen zen bitartean. Bueltak eta bueltak eman nizkion honi, amaren ahots gozoak mundura berrekarri ninduen arte. Afaria prest zegoen, baina nik ez neukan goserik.

Janaria jan beharrean burua izan zen jan nuena. Ezin nuen arazo hori niretzako bakarrik gorde, baina ezin nuen kontatu ere egin. Arrazoi mordoa nituen ahoa ez zabaltzeko: hasteko, nire gurasoek beraien problema propioak zituzten eta, haietako bat dirua zen. Beste alde batetik aitona geneukan; bera pozik zegoen, zoriontsua zen, hori zen geratzen zitzaizkion gauza gutxietatik onena eta ni ez nintzen inor alaitasun hori kentzeko. Azkenez pentsatzen egon nintzen gaixotasun honek ez zeukala erremediorik eta, tratamenduak, klinika, egoitzak edota medikazioak ordaindu ala ez, aitona memoriarik gabe geratzen ari zen, eta hori ez zen aldatuko.

Hurrengo bi egunetan ez nuen aitona ikusi, asteburua baitzen.

Astelehen arratsaldea ailegatzean, eskolatik presaka atera nintzen Aitor eta bere koadrilakoak atzetik baintuen. Inoiz baino gehiago egin nuen korrika, nire bizitza jokoan balego bezala. Ezin nuen azkarrago mugitu, nire hankak bakarrik zihoazen. Beldurraren presa nintzen, presa erraz eta motela. Aitor eta besteak gero eta gertuago zeuden, baina ni ez nintzen geldituko, ez horixe. Parketik pasatzean, zuhaitzen parean, ahaztuta geratzen ari ziren gaztaina zimeldu batzuei erreparatu nien. Zuhaitzean zintzilik zeudeneko babesa eta beroa faltan zuten, ziurtasuna falta zitzaien. Azken finean, gaztaina triste baten bizitza eta nirea ez ziren hain desberdinak. Horretan pentsatzen nengoen bitartean ez nintzen konturatu atzetik neukan koadrilak buelta erdia eman eta bakean utzi ninduela.

Aitonaren atarira sartzean, eskaileretara abiatu eta poliki igo nituen. 3. solairuan nengoela, aitonaren atera deitu eta atea ireki zidan. Baina nor zen hura? Aitona zen! Biluzik? Zer zebilen biluzik? Azkar sartu, atea itxi eta sofako manta bota nion gainean.

Bere aurpegiak desberdin ematen zuen, ez zen betikoa, ez zen arratsaldero merienda ateratzen zidan gizonarena. Oso zuri eta triste ikusten zitzaion. Egongelako beste aldeko sofan jesarri nintzen, aitona nik utzitako izararekin estaltzen zen bitartean. Ez nekien zer gertatzen ari zen. “Aitona, zer egiten zenuen biluzik? Non da zure arropa?” Ez zidan erantzunik eman. Berriz egin nion galdera, eta oraingotan haxe erantzun zidan: “Ez dakit, ez dut gogoratzen”. Haren gelako armairua arakatzen nuen bitartean arropa garbiren baten bila, ostiralean egindako zerrendari buruz pentsatzen hasi nintzen. Posible zen hain egun gutxitan hainbat gaizkitzea? Gerta zitekeen, bai. Gainera, kontuan hartuz nire aitonak ez zuela inoiz memoria pribilegiatua eduki, posibilitate hori handiagotzen zen. Egongelara bueltatu nintzen, aitona janztera. Arratsalde osoa pasatu nuen berarekin hizketan, ez nuen nire betiko aitona galdu nahi, hori inoiz ez.

Hurrengo goizean heldu zen berria, telefonoz. Nire amak hartu zuen deia nik eskolako motxila prestatzen nuen bitartean. Bat batean bere ohizko aurpegiko keinu gozo eta alaia guztiz desagertu zen, sorpresa eta izuzko bati leku egiteko. Aitona ospitalean zegoen. Klasera deitu eta gaixorik nengoela esan zuen amak, autoa hartu eta ospitalera gindoazen bitartean.

Medikuek ailegatu bezain laster informatu gintuzten: aitona atariko eskaileretatik jausi zen, kolpe serio eta grabeak jasoz. Ziur aski ez zela handik aterako esan ziguten. Amak ahoa estali eta komunera joan zen, negar egitera suposatzen dut.


Ama beti izan zen horrelakoa, arazoei bizkarra ematen dien horietakoa, begiak estali eta ezer ez ikusi nahiago duenetakoa. Medikuari galdetu nion ea aitonaarekin hitz egin nezakeen azkeneko aldiz. Baietz erantzun zidan, bere gelara laguntzen ninduen bitartean.

Atea itxi eta han utzi ninduen, nire aitonaaren antzik ez zuen gizon batekin. Sakon hartu nuen arnasa haren oherantz gerturatzen nintzen bitartean. Logela txikia zen, zuria eta ospitaleko usaina zuena. Begietara begiratu nion. Bere begiradak desegokitasuna erakusten zidan. Aitonak ez zekien non zegoen eta zergatik zegoen han. Eskua hartu nion eta berak ahoa ireki zuen, zerbait esatekotan. Berehala itxi zuen. Berriz ireki, nire eskua berearengandik urrundu eta hauxe galdetu zidan: “Nor zara zu?”

Begietatik malkoak atera zitzaizkidan. Ezin nuen “nor zara zu” hori irentsi, ezin nuen. “Aitona, neu naiz, Asier, zure Asiertxo... zure iloba”. Bere eskua nirearen gainean jarri zuen eta ondoren begiak itxi zituen. Bere ahoan irribarrea marraztu zitzaion. Nire eskua gero eta suabeago hartzen zuen. Bere makinak azaltzen zuezez, gero eta arnas gutxiago hartzen zuen. Ez nuen medikurik deitu, aitona pozik hil egingo zen.

Aitonaaren argazkiari nago begira. Orain badakit pasatu behar izan zuena, zenbat sufritu. Bai, alzheimer madarikatu horrek eraso egin dit. Argazkia mahaian utzi eta ezkerreko eskuaz hartzen dudana errotuladore gorriarekin bere izena idatzi dut irudian: Eusebio.

Nik ez zaitut inoiz ahaztuko, aitona.



Krisialdian, eskuzabala izan behar!

Andrea García Echeberria,
Berrio-Otxoa HLBHIP.

-Ezetz, esan dizut, praka hauek oso garestiak direla!
—Joe, ama!! 30 euro dira soilik eta negurako bakarrik 5 praka ditut!!
—Eta kexatzeko aukera duzulakoan zaude? Amaitu da, goazen etxera.
—Ama,... mesedez!
—Ezetz esan dizut! Gainera, 5 ikasgai suspenditu dituzu!
—Ama, baina badakizu aurten ez nagoela ondo eta...
—Utzi tontakeriak! Gertatzen zaizuna da mutilen kontuek ez dizutela pentsa-
tzen uzten!
—Hori ja ez da aitzakia izango...
—Ikusi beharko dugu...
Benoa, ikusi duzue ez neska arrunta naiz; Alex dut izena 15 urte ditut eta Bil-
bon bizi naiz. Aita langabezian dago eta ama jende zaharraren etxera joaten da gar-
bitzera.
Ikus daitekeenez ez naiz oso aberatsa. Lehen, ordea, bai. Gainera mutilagu-
nak utzi nau. Hain zoritarreko beste inor egon zitekeen? EZ.

Mikelen (nire mutilagun ohiaren) aitzakia utzi ninduenan izan zen ez zegoe-la prestatuta harreman baterako. Berak nahiago zuen PSP-era jolastea eta lagunekin futbolekin jolastea nirekin egotea baino. Nolakoak diren mutilak! Bi gauza besterik ez zaizkie gustatzen: titiak eta futbola. Ikaragarriak dira!

Etxera ailegatzean tuentian sartu naiz, bat-batean TLIN!! Sergiok txata zabaldu du, mutil katxarroa da bai, onartu behar dut baina, ez da Mikel bezalakoa... Mikel majoa zen eta gainera leku askotara eramaten ninduen. Noski guraso aberatsak edukita, edonork edozer gauza eduki dezake. Hala eta guztiz ere, erantzuten diot. Ordu eta erdi ematen dugu hitz egiten, oso atsegina da eta txiroa izan arren, gustatzen zait.

Azkenean, Sergiorekin buelta bat ematera irtengo naiz. Azken batean biok gaude aspertuta eta elkar ezagutzeko denbora izan daitekeela pentsatu dugu. Elkartu gara, bi muxu ematen dizkiogu elkarri eta Zubiartera joan gara buelta bat ematera. Orduan hitz egiten hasi naiz:

—Beno eta zelan gauzak etxean?

—Beno ondo ez... aiton-amonen etxean bizi gara.

—Zergatik?

—Gurasoek ez dutelako etxea ordaintzeko dirurik...

—Ufff...gogorra izango da, ezta?

—Beno ohitzen zara, baina dibertigarria da, ez pentsa! Guztiok batera gaude eta beti brometan edo jolasean egoten saiatzen gara.

—Eta arropa, mugikorra eta hori guztia?

—Erraza, neguko hiru praka ditut eta 5 kamiseta, anaiarekin banatzen ditut. Mugikorra bai, badut baina... oso zaharra da eta ez dauka internet, ez whatsapp, ezta tuenti ere. Hala eta guztiz ere, ez naiz kexatzen, gurasoak ulertzen ditut eta ahal dudanean laguntzen dut...

—Baina ez duzu inoiz ezer eskatzen?

—Hasiera batean bai, egunero eskatzen nuen zerbaite baina azkenean nire familiaren egoera ulertu dut eta laguntzen saiatzen naiz. Hobetu dugu, aitak, gutxienez, lana lortu du eta aitona-amonen pentsioarekin ere aurrera goaz.

—Kontatzen duzun moduan, ez du hain larria ematen...

—Kontua da, horrela ikusten ez baduzu inoiz ez zarela zoriotsu izango...

—Arrazoi duzu!

Mac Donalsera sartu gara. Hamar minutu konbentzitzen aritu eta gero, azkenean freskagarri batera gonbidatzen utzi dit. Ordu erdi pasa ondoren etxerantz abiatu gara. Bakoitzak bere ibilbidea hartu du.

Etxera ailegatu naizenean, gurasoak kalean daude, maletak daramatzate eskuan. Arraroa iruditzen zait eta aitari galdetzen diot:

—Bidaia batera goaz ala?

—Bidaia batera? —sutan dago— Leloa zara edo? Udaletxeak etxetik bota gaitu errenta ez ordaintzeagatik eta kale gorrian gaude...

—Baina hori ezinezkoa da. Eta telebista, ordenagailua?

—Txoriburu halakoa! Hori gutxienezkoa da, pentsatu apur batean; dutxa, sukaldea, oheak?

Negarrez hasi naiz baina gurasoek haserreegi daude ni kontsolatzeko. Hala eta guztiz ere, galdetzen ausartu naiz negar zotinka:

—Eta ikastola?

—Zortea izan duzu, hilabete hau osorik ordaindu dugu —amak erantzuten dit.

—Eta gero?

—Gero, ikastola publiko batera joango zara, Sergio dagoen ikastolara hain zuzen ere.

—Zer? Ezin dut! eta nire lagunak?

—Bakarrik zukan pentsatzen duzu? Harroputz halakoa!

Egia esan, ez ditut gurasoak ezagutzen. Aita beti brometan eta alai zegoen eta orain mamu bat dirudi. Ama begi lodi eta gorri-gorriak ditu, ile txarrak eta etxe-ko arropaz jantzita dabil. Gau honetan ostatu batera goaz lo egitera, gaur aterpea daukagu, bihar ikusiko dugu.

Goiza da. Egoera “etxean” berdina da, dutxa hartu barik eta arropa berberarekin joaten naiz ikastolara. Sartzerakoan nire lagunengana hurbildu naiz, beti bezala:

—Kaixo!


Ez dit inork kasurik egin, baztertzen naute, nazka aurpegiarekin begiratzen naute eta joan egiten dira. Bakarrik jesarri naiz, momentu horretan ohartu naiz guztiaz! Nire egoera oso larria da, beti aritu izan naiz prakak eskatzen, kamisetak... gurasoek etxeko errenta ordaintzeko ez zutenean! Gainera, oso berekoia izan naiz, bakarrik nigan pentsatu dut eta ez dut nire gurasoen egoera aztertu, dirurik gabe, lanik gabe eta larriena, etxerik gabe! Eta nik telebistaz eta ordenagailuz hitz egiten. Hau lotsa!

Hilabete hau gaizki pasatu dut. Irakasleek guztiz begitan hartu naute eta ikastetxetik joatea nahi dute. Beste alde batetik gurasoek egun bat etxe batean eta hurrengo beste batean igarotzen dute. Lagun onak ditugu baina krisia etxe guztietan dago eta eskuzabala izatea oso zaila da momentu hauetan. Azkenean gure aitona-amonen etxean geratuko gara 60 metro karratu bostontzat.

Sergiorekin asko joaten naiz orain. Zenbaitetan geratu naiz bere etxean lo egiten eta bere klaseko ikaskideak aurkeztu dizkit. Nire etorkizuneko ikaskideak. Oso majoak dira eta eskuzabalak. Orain irrikan nago ikastetxe publikora joateko, horrela ez naute baztertuko eta ez didate nazka keinurik egingo txiroa izateagatik.

Azkenean etxean laguntzea erabaki dut, eta bakarrik behar dudan arroparekin geratu naiz. Bestea saldu dut, eta noski, markakoa denez, 300 euro lortu ditut. Horretaz aparte, nire Samsung Galaxy SIII-a ere saldu dut eta 250 euro eman dizkidate harengatik. 20 euroko mugikor zahar bat bakarrik deiak eta mezuak bidali ahal izateko. Gurasoengana joan naiz eta:

—Zuekin hitz egin beharra daukat.



—Ez daukagu txorakeriei buruz hitz egiteko denborarik —esan du aitak.

—Ez dira txorakeriak. Behar ez nuen arropa aldatu dut eta nire mugikorra beste zaharrago batengatik saldu dut azkenean, 530 euro lortu ditut. Tori, zuentzat da.

—Baina, nola egin duzu hori guri baimena eskatu barik? —oihukatu du aitak.

—Lasai, lasai! Begira zer egin duen gure alabak! Konturatu da, bere egoera onartu du eta zerbait egitea erabaki du. Ausarta da, lagunkorra eta hori zoriontze-koa da.

Amak lasaitu nau negarrez hasi naizenean. Aita, berriz, etxetik haserre bizian joan da.

—Lasai maitea, dena konponduko da, ikusiko duzu —esan dit amak lasaitze-ko eran.

Gaur Sergiorekin geratu naiz. Jada bi egun daramatzat ikastetxe publikoan eta primeran nago lagunekin, bizitzaren egoera azaldu didate eta ikusi dut ni baino txarrago dagoela jendea. Egunero ikastetxea bukatu ondoren, zaharrei janari poltsak etxera eramaten dizkiegu euro batengatik, aldizkariak kale askotatik banatzen ditugu 2 euroengatik eta arratsaldero arropa denda batean laguntzen dut hiru orduz. Azkenean guztia batuta hogeiei euro gutxi gorabehera irabazten ditut astero eta guztia ematen diet gurasoei.

Gure egoera hobetzen doa, amak ere lana lortu du eta aurrera goaz. Nire aurreko ikastetxeko zenbait ikasle etorri dira hilabete honetan nire ikastola berrira, orain ulertzen naute eta ikasi dute.

Sergiok ni baino zorte handiagoa eduki du. Gurasoak lanean hasi dira, aurrez-ten ari dira etxe bat alokatzeko, gutxi falta zaie eta arropa berria erosi dute.

Orain, aberastasuna ez dut diruan ikusten, maitasunean baizik; Sergio pertsonalki ezagutu nuenean zoriontsua zen eta ia ez zeukan ezer. Nik bera baino gehiago nuen eta ez nintzen bera bezain zoriontsu. Orain aitak bere izaera aldatu du. Soldata handiagoa irabazten du, lanpostu hobea lortu du eta nik egiten ditudan esfortzuez ohartu da.

Krisialdian eskuzabalak izaten saiatu behar gara, beti egongo delako norbait gu baino txarrago egongo dena.

Ametzen balioa

*Jon Peña Torre,
Berrio-Otxoa HLBHIP.*

Ni ez nintzen beste munduko pertsona, oso normala baizik. Eskolara nindoan 15 urteko beste edozein moko bezala, lagunekin ateratzen nintzen asteburuetan eta bideojokoetan jolasten nuen. Neska batekin nengoen maiteminduta, Maria izena zeukana, eta berarekin egoten saiatzen nintzen klase orduetan. Esaten dudana, edozein moko bezala.

Baina nire buruan ez nintzen edozein moko: nik saskibaloï jokalaria profesionala izan nahi nuen. Hobeto esanda, ni saskibaloï jokalaria profesionala izango nintzen. Txikitatik entzuten nuen oso ona nintzela, oso urrun helduko nintzela... eta abar.

Baina horiek ez ziren bakarrik hitz zentzugabeak; nik egunero lan egiten nuen gogor, nire helburura heltzeko asmoz. Eskolatik irtetean, etxerako lan batzuk egin eta pabilioira joaten nintzen. 2 ordu baloiarekin eta gero gimnasiora joaten nintzen, nire gorputza hobetzeko asmoz. Lagunekin ateratzean, ez nintzen parrandan joaten, ez nuen alkoholik edaten. Bizi osasuntsua neraman. Egunero pentsatzen nuen kirol zoragarri honetan, ezinezko jokaldiak nire buruan irudikatzen. Egunero amesten nuen.



Jokatzen nuen taldean oso ondo tratatzen ninduten, eta nuen entrenatzailea-rengandik izugarri ikasten nuen. Gero eta hobia nintzela uste nuen, baina inoiz ez zen nahikoa niretzat. Nire lehenengo Espainiako txapelketa nahiko ondo jokatu nuen arren, ez nuen inoren arreta erakarri. Egia esanda, pixka bat etsita sentitu nintzen, baina amore eman beharrean, gogorrako lan egin behar nuela pentsatu nuen. Eta horrela izan zen: bi ordu jaurtiketak egiten egon beharrean, 3 ordu egoten nintzen, eta gimnasioan ordu bat egon beharrean, bi egoten nintzen. Amore emateko gogoa sentitzen nuenean, nire entrenatzaileak behin esan zidan aholkuan pentsatzen nuen: “Zure bizitzan zehar neke eginda sentituko zara hainbat alditan, gogorik gabe eta entrenatzeari uzteko asmotan. Momentu horretan, pentsa ezazu beti zu baino hobia den norbait egongo dela. Beraz, ez iezaziozu inoiz gogor lan egiteari utzi. Inoiz ez, berdin dio zer gertatuko den”. Inoiz eman didaten aholkurik onena da, dudarik gabe.

Denbora pasa ahala, gero eta arinago egiten nuen korrika, altuago egiten nuen jauzi eta tiro gutxiago akasten nituen. Nire entrenamendu orduen fruituak jasotzen ari nintzen. Eta Espainiako bigarren txapelketa heldu zen. Hainbat partidua bikain jokatu ondoren, talderik garrantzitsuenen elkarrizketan agertzen nintzen. Guztiek hitz egiten zuten nitaz, denek nahi zuten haien taldean jokatzeko. Guztiek ematen zidaten diru mordoa, nire bizitza osoan irabaziko nuena baino 4 aldiz gehiago. Nire ametsa beteko nuen talde handi batean jokatu. Honetaz aparte, Maria-rekin ateratzen hasia nintzen jada. Bizitza ezin hobe zihoan niretzat.

Harrigarria dirudien arren, ez nintzen inora joango. Ez oraindik, behintzat. Batxilergoko urte bat geratzen zitzaidan eta ez nituen nire ikasketak bukatu gabe utziko. Kirolari askok gero itzuliko direla esaten dute, baina ez dute inoiz betetzen. Eta ez nuen Maria hemen utzi nahi. Urte hartan hobetzen jarraituko nuen.

Urte madarikatu hartan.

Neguko egun normala zen, egun hotza. Beti bezala, goizeko 8etan klasera nindoan, Mariarekin hizketan. Etxetik atera, ezkerrera biratu, aurrera, eskuinera, aurrera, ezkerrera, zebra-bide bat gurutzatu, eskailerak jaitsi eta eskolan nengoen. Dena ondo zihoan, zebra-bidea pasatu arte. Festatik zetozen bi gaztek zeramaten abiadura ez zen normala. Drogatuta, edanda eta lorik egin gabe zeudela esango nuke segurtasun osoz. Gauza da nik ez nituela ikusi eta haiek goitik pasatu nindutela. Momentu horretan lo seko geratu nintzen; eta horrela bi urte eman nituen.

Esnatu nintzenean, Maria zegoen nire alboan. 2 urte pasatu ziren eta hark nire alboan jarraitzen zuen. Egunero etortzen zen ni ikustera. Ni esnatzean negarrez hasi zen. Pozarren zela uste nuen, nire gorputza ikusi nuen arte. Hilda nengoen gerritik behera. Hauxe zen, dudarik gabe, edozein pertsonarentzako amaiera. Negarrez hasi nintzen ni ere, baina orduan gogoratu nuen: “Beraz, ez iezaziozu inoiz gogor lan egiteari utzi. Inoiz ez, berdin dio zer gertatuko den.”

Mariarekin haserretzea probokatu nuen. Nik izugarri maite nuen, baina ezin nuen jasan nirekin pasatzea bere bizitza osoa. Zama bat izango nintzen berarentzat, eta nik bera pozik egotea nahi nuen. Ez zen batere erraza izan, nik oso txarto pasatu nuen, baina egin behar nuena zen. Norbait maite duzunean, pertsona hori pozik egoteko egin dezakezun guztia egiten duzu, nahiz eta horrek zu suntsi-

tu. Eta zurekin merezi duen bezain zoriontsua ez bada, ez du merezi zurekin ego-
tea.

Alta medikoa eman zidatenetik bi hilabetetara gurpil-aulki gaineko saskibaloi
talde batean sartu nintzen. Hasieran kostatu zitzaidan ongi egokitzea, baina gero
eta hobeto sentitu nintzen jokatzeko. Ez nintzen hain triste sentitzen. Azken finean,
hauze zen nire ametsa.

Mesedez, ez itzazue zuen ametsak baztertu zailak izango direlakoan. Beti,
errepikatzen dut, BETI izango duzue aukera egia bihurtzeko. Askotan zaila izango
da, bai, baina gogora ezazue: ez dago ezer bizitza osoan gure ametsak baino
boteretsuagorik.

Banana

*Amaia Beitia Martínez,
Nuestra Sra.del Carmen HLBHIP.*

Begiak ireki bezain laster eguzkiak itsutu nau. Zerua urdin-urdin dago, hodeirik gabe. Nire inguruari begiratu eta familiaren falta sentitu dut, non ote daude? Beharbada ibaira joan dira; bai, hor begiratuko dut. Bat-batean gose izugarria sentitu dut eta nire garunak pentsamendu bakarra du: “Banana, banana”. Familiaz oroitu bezain laster geroago banana bat hartuko dudala erabaki dut, haiek aurkitu ondoren. Baina hori guztia egin aurretik neure burua aurkeztuko dut. Hego Amerikan bizi naiz nire gurasoekin eta arrebarekin. Ile marroia dut eta oso alaia eta tripontzia naiz eta gustukoen dudan janaria bananak dira.

Etiketetik jaitsi eta ibaira abiatu naiz. Bidean Mana Zeri jauna ikusi dut eta familiari buruz galdetu diot. Ea haren truke zer emango diodan galdetu dit gizon maltzur honek! Beti egoera guztiez aprobetxatzen, zelako kopeta! Nire kabuz bilatuko ditut gurasoak eta arreba.

Pentsamendu hori berrirori: “Banana, banana”. Zelako gosea!

Ura ikusi bezain laster korrika joan naiz begiratzera baina ez ditut senideak aurkitu Masur Dea jauna baizik. Hari galdetzeko ideia burutik pasatu zait baina azkenean ez dut hori egin. Izan ere, ez du izaten oso usain ona gehienetan eta lizun ospea du.

Nora joan dira hauek? Herenegun joan ginen aintziran egongo dira? Bero honekin, bustitzeko leku batera joan dira dudarik gabe.

Bat-batean emakume bat pasatu da nire aurretik. Kaer Bi andrea da, nire amaren lagunetako bat. Saiatu naizen arren, galdera nire ezpainetan geratu da emakumeak lasterka alde egin duelako. Ez nau ezta ikusi ere egin! Ene! Beti doa presaka emakume hau!

“Banana, banana”. Noiz utziko dit bakean nire sabelak? Aintzirako bidea oso luzea da eta tripako mina handituz joan da. Azkenean heldu naiz eta hor ikusi ditut guztiak bilduta aintziraren ertzean. Haiei hurbildu natzaie eta nire familia ez zegoe-la ikusi dut Tamotz familia baizik. Non bilatuko ditut orain? Orain pentsatzen dudanean amak esan zidan atzo leku berezi batera joango zirela baina.. noiz?

Seka Tamotz andreari hurbildu natzaio eta familiari buruz galdetu diot. Ez dituztela ikusi esan dit nahiz eta ikusmen zoragarria izan. Haien gosariari gose aurpegiarekin begiratu diodala ikustean jateko zerbait eskaini didate baina nire sabelak ez zuen janari arrunta onartu nahi: “Banana, banana”.

Norabide zehatzik gabe paseatzen egon naiz beste leku batzuetatik baina ez ditut aurkitu. Kezkak ia gosea kentzea lortu du eta nahiko etsita nago.

Azkenean ibaira bueltatu eta hor geratu naiz eserita aire freskoa hartzen. “Banana, banana”.

Orduan Beman Do jauna eta Kador Toka andrea agertu dira berba egiten. Ni ikusi nautenean hurbildu egin dira eta Kadorrek nire familia Haitz mendira joan dela esan dit. Haitz mendia? Non dago hori? Bizitza osoa hemen bizi izan naiz eta inoiz ez dut hari buruz entzun. Bikotea ni horra eramatera eskaini da eta estutasun handian jarri naute. Izan ere, Kador andrea ezagutzen dudana emakume motelena da, Haitz mendira nirekin etortzen bada, ez gara inoiz helduko! Ezetx esan diet modu onean baina Beman jaunak nirekin joango direla esan du behin eta berriz. Nola izan daiteke hain egoskorra!

Ordu luze-luze bat pasa ondoren mendira heldu gara eta hor aurkitu dut Mino familia. Nire familia. Hortik jolasten zeuden hirurak eta... bananak jaten. Bananak! Haiekin jolastera joan naiz lasterka eta jatera, noski! Hemen amaitzen da nire eguna, nire familiarekin. Aizue, niri buruzko gauza garrantzitsu bat esatea ahaztu zait! Mino dut izena. Patxi Mino.

Ametz

Maitane Barredo Peña,
Nuestra Sra. de Begoña HLBHIP.

Etxera nindoan. Egunero bezala lehenengo okindegitik igaro behar izan nuen. Bertan, atearen alboan emakume bat zegoen dirua eskatzen. Emakumeak oso zaharra zirudien, nahiz eta seguruenik gazteagoa izan.

Bere albotik pasatu eta okindegira sartu nintzen.

—Aupa, betiko ogia? —galdetu zidan Nagorek, okinaren emazteak.

Baiezkoa eman eta txapata handia nire aurrean utzi zuen. Ogia hartuta okindegitik atera nintzen irribarrez. Egun txarra egiten zuen, euriaren ur tantek nire ile marroia bustitzen zuten.

Kale batzuk aurrerago, etxe baten atarian eserita, okindegian ikusi nuen andrea zegoen. Dardarka zegoen, ile zuria eta arropa blai-blai eginda, eta begirada galduta lurrean.

Motxilaren kanpoaldeko poltsikoan neukan diru-zorroa atera eta ogiaren bueltak eskaini nizkion.

—Hartu, ez da asko baina behintzat zerbait erosi ahalko duzu —esan eta korrika joan nintzen etxera.

Bertara ailegatzean, guztiz bustirik, nire neba ikusi nuen orkatila igeltsutua sukaldean jaten.

—Zer arraio gertatu zaizu, Iker? —galdetu nion esertzen nintzen bitartean.

—Jausi eta hankan min hartu dut. Ondo nago, baina ezin izango dut eskubaloiko txapelketan parte hartu.

Momentu horretan nire ama sukaldeko atetik sartu zen.

—Ene maitea! —oihukatu zuen ni ikustean— Nola ez duzu aterkia eroan klaserara?

—Goizean ez zen euririk, gainera ez nago hain bustita.

Amak arrain salda plater sakon batean jarri eta eman zidan.

—Tori, jan ezazu hau, baina lehenago jarri arropa horiek lehortzen!

Amak esan zidana egin eta salda jatera jesarri nintzen.

“Gero eta gehiago dira kale gorrian bizi direnak” esaten zuen teleberriko gizon zahar batek.

Kaleko amona gogoratu nuen, Nolakoa izan zen bere bizitza gaztetan? Beti izan zen txiroa? Ala ez? Galderak neure buruan zeuden bueltaka.

Janaria amaitzean soberan geratu zen salda hartu eta etxetik atera nintzen amari txintik esan gabe. Amona lehengo moduan aurkitu nuen, ez zirudien mugitu zenik. Niri begiratu eta irribarre egin zuen.

—Zu lehenago dirua eman didan neska zara, ez?

—Bai, tori. Salda beroa ekarri dizut —erantzun nion irribarre handi batekin.

Amonak irria kendu gabe atariko lurretik altxatu eta nire eskuak hartu zituen.

—Nirekin etorri behar zara, gauza bat erakutsiko dizut! —esan zidan.

Izugarria iruditu zitzaidan nola salda bero batekin kaleko jendea pozten zen. Eta gero etxea, familia, lagunak, ikastetxea, janaria, jostailuak, eta hori guztia dugu-nok gehiago eskatzen dugu gure “poztasuna” lortzeko...

Minutu batzuk geroago Henao kalean geunden, babespe eta jantoki publiko baten aurrean. Sartzean ikusi nuena harrigarria iruditu zitzaidan. Mahai ugari sakanaturik zeuden, lekua oso handia zen eta jendea jaten ari zen trankil-trankil. Familia ugari zeuden, atzeritarrak eta hemengoak ere bai.

—Begiratu, hemengo jendea oso desberdina da baina horri kasurik egin gabe, denak bata bestearen alboan jaten ari dira.

Eta egia zen. Nahiz eta jende desberdina egon, nahiz eta etxerik eduki ez bertako jendea irribarre handi batekin jaten ari zen.

Neskato txiki batek nirekin talka egin zuen lurrera jausiz.

—Barkatu... —xuxurlatu zuen, lurretik altxatzen zelarik.

Neskato polita zen, ile marroia eta begi beltz handiak zituen.

—Ez kezkatu, nola duzu izena?

—Amets!

Bere izena irribarre oso handi batekin esan zidan. Bere begi beltzek distira berezia zeukaten. Itxaropena ote zen?

Ametsekin hitz egin nuen. Bere familia udaren amaieratik bizi zen bertan. Bere aitak ez zeukan lanik eta ama, berriz, zerbitzaria zen hortik urrun zegoen taberna batean.

—Maitane, eta zure gurasoek zertan egiten dute lan? —galdetu zidan neskatxak.

Minutu batzuk geratu nintzen pentsatzen. Beti nengoen kexaka nire bizitzari buruz, jende hau txartoago bizi zen, baina pozik zeukanarekin.

—Nire amak postetxean lan egiten du eta aitak gozo-denda batean. Errekal-den bizi naiz —erantzun nion irribarre handi batekin.

—Hara! —esan zidan bere begi distiratsuekin begira.

—Maitane! —deitu zidan amonak. Amets agurtu eta amonarengana joan nintzen—. Badakizu hemen bolondresak daudela laguntzen? —galdetu zidan per-sona talde bati begiratzen zion bitartean.

—Bai, badakit.

—Zergatik ez zatoz zeu ere bolondres? Ametsekin ikusi zaitut hizketan eta pozik zeunden.

Ez zen ideia txarra behar zutenei laguntzea, eta gainera ondo pasatzea.

—Ongi da! —erantzun nion.

Bat-batean dena beltz bihurtu zen, amonaren aurpegia bueltaka eta bueltaka hasi eta nire logelan esnatu nintzen.

Dena ametsa izan zen baina, nahiz eta hala izan, oraindik pertsona horiei lagundu ahal nien.

Ikastetxetik atera ondoren Henao kalera joan eta jantokian sartu nintzen. Ber-tan mutil bat zegoen.

—Barkatu, lagundu ahal dizuet? —esan nion.

—O ! ondo da! Denbora gutxi barru jendea jatera etorriko da. Zoaz mesedez janaria zerbitzatzen den lekura.

Minutu batzuk geroago jantokia beteta zegoen. Jendea sartu eta sartu egiten zen eta ni berriz janaria zerbitzatzen. Momentu horretan neskabila bat sartu zen jan-tokira, berehalaxe jakin nuen nor zen. Gure begiradak gurutzatu ziren eta berriro ikusi nuen distira polit hori.

Amet's.



Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Galdutako giltza	9
- Elkar trukaketa	11
- Izenik gabeko animaliak	13
- Jonen eta Mikelen altxor miresgarria	15
- Mohameden bizimodua	17

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Shaara	21
- Maitasunaren giltza eta indarraren boterea	23
- Distantzia	27
- Animaliak gorroto zituen albaitaria	30
- Sei neska oso arraro	32
- Eskaileren arteko isilgunea	36
- Lata baten bizitza	39
- Amamaren kontakizunak	41

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Denbora aurrera doa	45
- Homosexuala naiz	48
- Maite zaitut, Bilbo	51
- Angel eta ardiak	53
- Irribarre horiek atzean uztea	55
- Betirako itxarongo dizut	58

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Gerra ez da abenturak bizitzera joateko	63
- Nik ez zaitut ahaztuko	65
- Krisialdian, eskuzabala izan behar!	69
- Ametsen balioa	73
- Banana	76
- Amets	78



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO